

## ELKARRIZKETA

## Vicenç Navarro:

«*Euskal Herrian ere, biztanleko gastu publiko soziala ekonomiaren garapenarena baino txikiagoa da*»

## EZTABAIDA

## Eutanasia eztabaidagai

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEAErakunde autonomaduna  
Organismo Autónomo delEUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## ERREPORTAJEA

## Kontziliazioa edo lan-produktibitatea helburu?

Espainiako Kongresuak ordua atzeratzeko proposamenak kontziliazioa ez beste zenbait arazo ekarri ditu azalera

## GRAMATIKA

Puntuazioaren oinarrizko arauak (1): esaldien artekoak

JUAN GARZIA

## ZIENTZIAREN DIBULGAZIOA

Elikagai funtzionalak: erabilera egokiaren garrantzia

IDOIA LARRETXI  
ITZIAR ESEBERRI



**Zuzendaritza:**

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

**Koordinatzailea:**

Xabier Amatria

**Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:**

Itzaropena S.A.

**Ilustrazioak:** Concetta Probanza

**Zenbaki honetako lankideak:**

Xabier Amatria, Begoña Aierdi, Jon Arizkun, Urtzi Barrenetxea, Arkaitz Barriola, Adriano De Mata, Miel A. Elustondo, Itziar Eseberri, Irene Fernández, Juan Garzia, Garazi Kamio, Idoia Larretxi, Luma, Arantxi Orbegoza, Nerea Pikabea, Edurne Romano, Isabel Tomé, Izaskun Zuntzunegi.

**ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ**

aldizkarian argitaratutako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

**ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ**

aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

**ISSN:** 1576-5563

**Legezko Gordailua:** BI-1141-93

**Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

Donostia-San Sebastián 1,  
01010 VITORIA-GASTEIZ.  
Tel. 945 01 76 37  
[www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)

**Hutsen zuzenketa**

Aldizkariaren aurreko zenbakian (82) modu okerrean aipatu ziren IVAPen zuzendari izandakoen izenak. Hauek dira izen zuzenak: Javier Berriatua, Elisabete Bizkarralegorra, Patxi Sierra-Sesumaga, Peru Bazako, Josu Erkoreka, Jon Urrutia eta Encar Echazarra.

# Aurkibidea

- 2** *Marraskia*  
ARKAITZ BARRIOLA
- 4** *Dudanet*
- 5** *Pertsonaia*  
Zuhaitz Gurrutxaga  
NEREA PIKABEA
- 6** *Elkarrizketa*  
Vicenc Navarro: «Euskal Herrian ere, biztanleko gastu publiko soziala ekonomiaren garapenarena baino txikiagoa da»  
MIEL A. ELUSTONDO
- 12** *Leihatila*  
Zuhaitzaren erorketa  
GARAZI KAMIO
- 13** *Giza baliabideak*  
Bizitzako garaia (eta 2)  
ISABEL TOMÉ
- 15** *Gramatika*  
Puntuazioaren oinarrizko arauak (1): esaldien artekoak  
JUAN GARZIA
- 17** *Leihatila*  
34. autobusa  
ADRIANO DE MATA
- 18** *Lanean euskaraz*  
Hizkuntza prestakuntza: ELEBI eta berariazko ikastaroak  
ARANTXI ORBEGOZO  
EDURNE ROMANO
- [ARIKETAK]
- 19** *Normalizazioa*  
«Honaino heldu gara, eta orain zer?»  
Etorkizuneko ildo berri bila abiatu zen IVAP  
30. urteurreneko ospakizunaren karietara  
MIEL A. ELUSTONDO
- 24** *Zientziaren dibulgazioa*  
Elikagai funtzionalak: erabilera egokiaren garrantzia  
IDOIA LARRETXI  
ITZIAR ESEBERRI
- 26** *Erreportajea*  
Kontziliazioa edo lan- produktibitatea helburu?  
JON ARIZKUN
- 30** *Eztabaida*  
Eutanasia eztabaidagai  
NEREA PIKABEA
- 34** *Denbora-pasak*

## DUDANET lineako kontsulta-zerbitzua

Hemen dituzu IVAPeko DUDANET kontsulta-zerbitzuan erantzundako zenbait zalantza:

### GALDERA

*Lehendakari* hitza Eusko Jaurlaritzako burua esanahiarekin, esaldi batean agertzen denean, hau da, lehendakariaren izen propioa esan gabe, larriz ala xehez idatzi behar da?

Adibidez: Atzo Lehendakariak/lehendakariak Emakunderen XXV. urteurrena ospatu zuen.

### ERANTZUNA

Euskaltzaindiaren oniritzia daukan *Letra larriak erabiltzeko irizpideak* liburuan zehazten denez, ez da derrigorrezkoa letra larria erabiltzea. Gure gomendioa da xehez hasita idaztea.

### Informazio gehiago:

- MUJIKA, Alfontso. *Letra larriak erabiltzeko irizpideak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, (2008) 33.-37. or.

### GALDERA

ZER eta huskeria hori lortzeko = ZER-TARAKO eta huskeria hori lortzeko

Biak al dira zuzenak? Hau da: egitura hori «ZER» deklinaturik edo deklinatu gabe erabil daiteke (zerekin, norentzat...)?

### ERANTZUNA

Harridura adierazteko, galdetzaileei *eta* juntagailua gehitzea zuzena da; halaber, galdetzaileak deklina daitezke.

Orain **zer eta** jeloskor.

Eta han goiko leihoan ikusi genuen, **zerekin eta** largabista batekin ari zen orain Goioren etxera bidea zelatatzen.

Arrasateko ikastola batean aritu naiz, **norentzat eta**, bost-sei urteko umeentzat hitz egin behar izan dudalarik.

### Informazio gehiago:

- Zubiri, Ilari; Zubiri, Entzi. *Euskal gramatika osoa*. 2. argit. Bilbo. Diktatiker, (2000). 607. or.

### GALDERA

Portu-agintaritzita eta administrazio-kontseilua letra xehez idatzi behar al dira, generikoak badira?

### ERANTZUNA

Orain arte ez da arau-mailako irizpide argirik izan letra larrien eta xeheen auziaz; harik eta Hezkuntza Sailak, EIMA programarekin, *Letra larriak erabiltzeko irizpideak* lana argitaratu arte.

Euskaltzaindiaren oniritzia duen lan horretan zehazten da erakunde eta taldeen mendeko kudeaketa-organoen izenak xehez idazten direla erabilera generikoan.

### Informazio gehiago:

- MUJIKA, Alfontso. *Letra larriak erabiltzeko irizpideak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, (2008) 52. or.

### GALDERA

Urtebetean ala urtebetez?

- Urtebetean egon da ospitalean
  - Urtebetez egon da ospitalean
- Urtebetean luzatu zaio kontratua
  - Urtebetez luzatu zaio kontratua

### ERANTZUNA

Euskaltzaindiak 110. arauan zehazten duenez, iraupena adierazteko absolutibo (urtebete) eta instrumental mugagabeak (urtebetez) eta inesiboa (urtebetean) erabil daitezke euskalkien eta aditzen arabera.

Beraz, aipatutakoez gain *Urtebete egon da ospitalean* eta *Urtebete luzatu zaio kontratua* ere zuzenak lirateke.

### Informazio gehiago:

- Euskaltzaindiaren 110. araua: «Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzailedunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen».

Antzeko kontsulta gehiago ikusteko, edo zeure zalantzak argitzeko:

<http://www.ivap.euskadi.net/r61-v50001x/eu/v50aWar/comunJSP/v50acambioIdioma.do?v50aCgaIdioma=eu>

# ZUHAITZ GURRUTXAGA, FUTBOLARI OHIA ETA AURKEZLEA:

## «*Futboleant izandako magia berreskuratu dut telebistarekin*»

NEREA PIKABEA  
KAZETARIA



Iturria: EITB

**H**emeretzi urterekin hasi zuen futbolaren erromes bidea Realean.

Geroztik atea defendatzea izan da bere eginkizuna jokatu duen talde desberdinetan. Futbolari zaildua da elgoibartarra. Zenbaitetan, malkartsua baloia bere eremutik urruntzen egin duen bidea. Futbolarekiko maitasuna itzaltzen joan zaio poliki-poliki, eta hogeita hamahiru urterekin askatu ditu lokarriak, betiko. Musikan, bakarrizketetan eta pantaila txikian aurkitu du futboleant galdutako lilura.

**Zer dela eta aukeratu zenuen futbolari izatea?**

Umetan, futbola asko maite nuen. Orduak ematen nituen baloiarekin jolasean. Ez nuen pentsatzen maila horretara iritsiko nintzenik. Baina momentu txarrak ere bizi izan ditut, eta hori ezin kontatu. Horrek molestatu egiten nau.

**Presio handia al dago futboleant?** Kontu handiarekin ibili behar dute futbolariek esaten dutenarekin. Nik 19 urterekin debutatu nuen Realean, eta ez nuen heldutasun emozional nahikoa hori nuenari aurre egiteko. Gipuzkoa osoa nuen atzetik. Asko sufritzen nuen horrekin. Kategoria baxuagoetan askoz lasaiago bizi izan naiz, presio gutxiagorekin.

**Futbolari garaiko bizipen horiek kontatzen dituzu bakarrizketetan?**

Futbolari batek jardunean ari denean normalean kontatzen ez dituen gauzak onak eta txarrak dira, beti ere umorez kontatuak: gola sartu gure ate barruan, esaterako. Badirudi futbolariei politikoki zuzenak izatea tokatzen zaigula, askotan komunikabideekiko harreman horretan ezin diegula galderi umorearekin erantzun. Gero, sekulako oihartzuna izaten dute.

**Zer da futbolak eman dizun gauzarik onena eta txarreana?**

Orena? Aldageletako giroa eta futbolari esker egin ditudan lagun handiak. Futbola oso kirol entretenigarria eta aberasgarria da. Txarreana, berriz, lehen aipatu dudana presio hori. Nik momentu batzuetan ezin izan nuen presio hori jasan. Garai batean, erdi galduta ibili nintzen.

**Vanpopel musika taldeko abeslaria eta gitarra-jotzailea ere bazara...**

Orain dela 3-4 urte hasi nintzen musika taldearekin kontzertuak ematen. Konturatu nintzen jendeak istorioak

entzun nahi zituela, umore ukituarekin. Nik uste dut hori hasi nintzela gero bakarrizketak egiteko neure burua trebatzen.

**Pantaila aurrean aritzeko aukera sortu zaizu. Aurreana Realeko dokumentala eta *Tumatxak*, orain *Hizkamizka*. Zer moduz sentitzen zara?**

Lehen futboleant bizi izan nuen magia hori berreskuratu dut orain telebistarekin. Realeko futbolariekin eginiko dokumentala neurrira eginiko trajea izan zen: elkar ezagutzen genuen eta gaia barrutik ezagutzen nuen. Politia izan zen. Gero etorri zen *Tumatxak*. Guretzat musikari handi direnak elkarriketatzeako aukera izan dut. Eta orain *Hizkamizkan* nabil. Formatu txikia da, aurrekontu txikiarekin egina. Ikasten eta hausnartzen ari gara nola hobetu programa.

**Aurrera begira, zer aurreikuspen duzu?**

Bakarrizketekin jarraitzea gustatuko litzaidake. Oso eroso ari naiz horretan. Momenturen batean, futbola utzi eta beste gairen bati buruzko bakarrizketak egin beharko ditut. Gai berriekin moldatzea beste erronka bat izango da niretzat. ■

## VICENÇ NAVARRO:

*«Euskal Herrian ere, biztanleko gastu publiko soziala ekonomiaren garapenarena baino txikiagoa da»*

MIEL A. ELUSTONDO  
KAZETARIA ETA ARGAZKILARIA

**V**icenç Navarro López. Politika Publikoetako katedraduna da (Johns Hopkins Unibertsitatea, AEB), Ekonomia Aplikatuko katedraduna (Bartzelonako Unibertsitatea), eta Politika eta Gizarte Zientzietako katedraduna (Pompeu Fabra Unibertsitatea). Hizlari izan zen Gasteizen IVAPen 30. urteurrenaren karietara egin zen jardunaldian. Hitzaldi mamitsu hartako zenbait ale xehatu dizkigu elkarrizketan, aho bilorik gabe.



«Zerbitzu publikoak etorkizuneko Administrazioan» egin zenuen hitzaldia. Zuk, ez alferrik, krisiari buruz ekin zenuen, krisia hartu zenuen zure hitzaldia-  
ren gai eta ardatz...

Zeuk esan duzu, «Ez alferrik!». Oraingo krisi honek izugarri jo ditu zerbitzu publikoak, zalantzarik ez horretan. Espainiako gobernuaren eta autonomia askoren austeritate politikak zerbitzu publikoak murrizten eta murrizten ari dira etengabe, zerbitzu horiek eskasten ari dira. Lehenaz gainera eskasten, esan beharko genuke. Ez naiz debaldetan ari, Espainiak Hamabosten Europako Batasuneko (15-EB) gastu publikorik txikienetakoa baitu, biztanle bakoitzeko gastu publiko soziala barne. Hamabosteko talde horretan dira, aldiz, espainiar estatuaren ekonomi garapen antzekoa duten herrialdeak. Alegia, Suedian zerbitzu publikoetan ari den biztanleriaren ehunekoa izango balu Espainiak, estatu honek sei milioi lanpostu izango lituzke eta, ondorioz, langabeziarik ez luke izango. Horra «krisia».

**Krisiaz jardun zenuenez, jo dezagun hortik; azalpen eta irtenbide bila ari garenaz, krisiaren hotsa zabaltzen hasi zen une beretik. Krisiaren egiazko arrazoiaren artean, zenbait herrialderen testuinguru politikoa azpimarratu zenuen. Esan zenuenez, Espainia, Portugal eta Grezia, esaterako, eskuin muturreko diktadorek gobernatu dituzte urte askoan, eta ez oso aspaldi arte. Krisiak erraietaraino jo duen beste herrialde bat, Irlanda, gobernu atzerakoi eta autoritarioak gobernatu izan du. Non da bien arteko lotura? Alegia, zer ikustekorik dute arrazoi horiek, eta ondorio hauek?**

Azterketa ez da gaitza: Euroguneko herrialdeak dituzu Espainia, Portugal, Grezia, Irlanda... Euroguneko periferiakoak! Eta periferiako herrialdeok indar atzerakoiek gobernatu dituzte Bigarren Mundu Gerratik hona; zati handiengan,

bederen. Horra, adibidez, Espainia. Esan beharrik ote dago zeinek gobernatu zuten hemen berrogei urtean? Diktadura faxista, edo faxistoidea, izan zen hementengoa. Indar atzerakoi muturrekoek nahieran agindu zuten espainiar estatu honetan. Erabatekoa zen haien agintea. Eta, diktaduratik demokraziarako iraganbidean ere, Trantsizio garaian, erabateko aginte horretaz baliatu ziren indar atzerakoi horiek. Ondorioz, demokrazia mugatua, ahula izan zen. Horrek, besteak beste, balio du azaltzeko zergatik dugun Estatu bat oso gizarte kontzientzia txikia duena eta, aldiz, Estatuaren seguritate aparatuak ikaragarri garatuak dituen. Ez naiz alferrik hitz egiten ari,

**«Herrialde baten ekonomia suspertzeko, askoz garrantzi handiagoa du haur eskolak irekitzeak abiadura handiko tren egiten inbertitzeak baino»**

## KOLPE MILITARRA, EZ GERRA ZIBILA

«Espainian ez dago gerra zibilak esan nahi izan zutenaren kontzientziarik. “Gerra Zibila” esan dut, baina gaizki esanik, hura kolpe militarra izan zelako. Alemaniako nazismoak eta Italiako faxismoak lagundu zuten, eta haien laguntzarik gabe indar kolpista espainolek ez zuketean lortuko Errepublika azpiratzea. Herriak egin zuten erresistentzia ikaragarria da lekuko. “Gerra zibila” gizarte klaseen arteko gerra izan zen. Beren pribilegioak defenditzen zituzten aberatsak ziren alde batean, eta herri xehea, berriz, beste aldean. Klase arteko gerra ez ezik, Espainiari buruzko bi kontzepzioen arteko gerra ere izan zen. Alde batean, Espainia eternoa, inperiala zegoen –geroan, Espainiako erresuma izango zena, gunea Madrilen duena–, espainiar estatuaren nazio aniztasuna onartzen ez duena, Kataluniaren eta Euskal Herriaren kultura itotzeraino estutzen zuena, hazten uzten ez ziona. Bai Kataluniako kultura, eta bai Euskal Herrikoa, zapaldu zituzten».

### «Finlandiako ikaslerik txarrenek, Espainiako onenek baino ezagutza maila handiagoa dute»

badira adierazleak. Hartu 15-EBko herrialdeak banan-banan, eta ongizate-estatuaren zerbitzu publikoetan lanean ari den biztanleriaren ehuneko txikienetakoa dugu espainiar estatuan, arestian esan dudanez. Nahikoa da osasun arloa, hezkuntza, gizarte zerbitzuak... aintzat hartzea. Kontrara, polizi kopururik handiena dugu 100.000 biztanleko. Baietz, bada! Indar atzerakoiek agindu dute Estatuan, «demokrazia garaia» izeneko horretan ere. Espainia, izan ere, gutxien finantzaturako, okerren garatutako ongizate-estatuetakoa bat da 15-EBn.

#### Zuk zerbitzu publiko indartsua defendatu ohi duzu, lana sortzeko gai izan dadin. Nola lortu?

Espainiako ongizate-estatu behar baino gutxiago dago finantzatuta. Esaterako, bost pertsona helduetarik bakarra ari da lanean ongizate-estatuaren zerbitzu publikoetan. Aldiz, bakarra izan beharrean bost izango balitu –horixe baita Suedian kopurua–, bost milioi lanpostu gehiago

izango lituzke. Espainiako hedabide nagusietan esaten eta irakurtzen dugunaren guztiz kontrakoa da egia: Espainian, arlo publikoa gutxi garatuta dago, eta zenbakiak ikusi besterik ez dago horretaz jabetzeko: gastu publikoa biztanleko, edo arlo publikoan lanean ari den biztanleriaren ehuneko, adibidez, 15-EBko apalenak dira. Izan ere, Espainiaren ekonomi arazorik handienetako bat da lanean ari diren biztanleen ehuneko apal hori. Hori, partez, bederen, ongizate-estatuaren garapen eskasari zor zaio. Lanak, berez, definizioz, aberastasuna sortzen du, eta lan egingo duen jendea behar dugu. Egia, herrialde baten ekonomia suspertzeko, askoz garrantzi handiagoa du haur eskolak irekitzeak –emakumea lan-merkatuan integratzea erraztuko baitu horrek, adibidez–, abiadura handiko trena egiten inbertitzeak baino, zertarako eta Bartzelonatik Madrilera bi ordu eta erditan joateko!

#### Zerbitzu publikoa indartzeak pribatua ahultzea esan nahi du? Ba ote bata bestea bezain indartsua izatea?

Espainiar estatuan, autonomietan barne, indar atzerakoiek agintzen dute, nabarmen. Horren ondorioa da, esate baterako, beste herrialde batzuetan ongizate-estatuaren zerbitzu publikoak direnak hemen pribatuak izatea, hein handi batean. Osasun publikoa behar bezainbeste finantzatuta ez dagoenez, 15-EBko medikuntza pribaturik handienetako bat eragin du espainiar estatuan. Berdin gertatzen da hezkuntzan. Hortik dator Espainiako ongizate estatuko gizarte mailak nabarmen polarizatuta egotea. Gizarteko sektore ahaltsuenak zerbitzu pribatuetara jotzen du; gizarteko maila apalek, aldiz, zerbitzu publikoetara. Horrek ez dio gizarteari mesederik egiten. Europako eskolarik onena Finlandiakoa da, eta, han, hala bankuko nagusiaren umea nola banketxeko langilearena, eskola berera doaz biak. Pentsatu ere ez horrelakorik espainiar estatuan. Ondorioz,

## ESPAINIAR ESTATUAREN KONTRA

«Indar atzerakoiek demokrazia aldiaren nagusitasunak garbi erakusten du Espainian ez dutela nazio aniztasuna inoiz onartu. Gaur egun, Trantsizioaren lehen aroaren amaiera ikusten ari gara. Espainiako herrialde eta nazio ezberdinen nazkamena orokortu egin da. Goia jo du Katalunian. Ez da Espainiaren kontrako sentimendua, espainiar estatuaren kontrakoa baizik. Izan ere, Estatu honen elementu klabeak ez dira aitzinatu, historian zehar nagusi izan diren kulturaren mendeko dira oraindik».





Finlandiako ikaslerik txarrenek, Espainiako onenek baino ezagutza maila handiagoa dute. Ezberdintasunak ez dakar ekonomi eraginkortasuna, nahiz eta Espainian nagusi den pentsamendu ekonomikoak horixe aldarrikatu. Zerutik jakina da, ordea, herrialde honetan ekonomi ezagutza oso ideologizatuta dagoela, ez duela zorrotasun zientifikorik. Eta hedabideek ere ez pentsa! Iritzi orrialdeak irakurri besterik ez duzu konturatzeko: auzoan da dibertsitatea.

**Krisi garai luze honetan sartu diguten ideia: «Ez dago dirurik!». Sinestera ere iritsi gara. Zuk, ordea, besterik diozu, dirua badagoela, baina ez dela biltzen, edo ongi banatzen...**

Hedabideetan eta espainiar gobernuaren etengabe zabaltzen ari diren fribolitate-rik makurrenetako bat da hori, duguna baino gehiago gastatzen dela Espainian. Hori sinetsiko duenik ez dago. Erraza da frogatzea baieztapen hori ez dela sinetsgarria. Krisiak eztanda egin baino lehen ere, espainiar estatuko per capita Barne Produktu Gordina 15-EBkoaren %94 zen. Beraren gastu publiko soziala, aldiz, ez zen 15-EBn biztanleko duten gastu publiko sozialaren %94, %74 baino. Horrek esan nahi du, besteak beste, espainiar estatuak bere aberastasun mailari zegokion baino 66.000 milioi euro gutxiago gastatzen zituela! Espainiak badu aberastasuna, baina Estatuak ez du biltzen. Hori gertatzen da, hain zuzen –eta

lehen ere esan dut–, indar atzerakoiek Estatuak, eta hedabideak, zeharo hankapean dituztelako. Espainiako politika fiskala ikaragarri erregresiboa da. Estatuan nomina duten hiritarrik gehienek 15-EBn haien homologoek ordaintzen dituzten zergak baino gutxiago ordaintzen dute. Hala ere, batasun politiko-administratibo horretako gainerakoek ordaintzen dutena ordaintzen dute espainiarrek ere. Paretsu dabilzala esan nahi dut. Aldiz, beren diru-sarrera kapitalaren errentetatik jasotzen dutenek –biztanleriaren gutxiengoa–, Suedian beren homologoek ordaintzen dutenaren %10 ordaintzen dute! Herrialde honetako aberastasun handiek, urtean 150 milioi euro baino gehiago fakturatzen duten enpresa


«Espainiako aberastasun handiek kasik ez dute zergarik ordaintzen, eta hortik dator espainiar estatuaren pobrezia»

handiek eta banka handiak, kasik ez dute zergarik ordaintzen herrialde honetan. Hortik dator espainiar estatuaren pobrezia. Estatuak badaki, jabetzen da horretaz, baina ez da egoera zuzentzeko gauza. Eta ez da gauza, alderdi politikoak bere gogara erabiltzen dituen finantza-eta enpresa-interesak ordezkatzen dituelako, edo, bestela, alderdi politikoak ez direlako ausartzen talde handi horiei aurre egitera. Gogoan har alderdi politiko gehienak zeharo zorpetuta daudela, eta,aldi berean, banketxeen indarra neurritz gain dimentsionatuta dagoela Espainian. Esate baterako, eragin ikaragarria dute hedabideetan. Eta eragin horren ondorio da haien orrialdeetan, eta uhinetan, zabaltzen diren ekonomi sentiberatasunen murrizte beldurgarria.

**IVAPen 30. urteurrenaren karietara egin zenuen hitzaldian krisia ardatz harturik jardun zenuen, eta Kataluniako Konstituzio Prozesuaz –«Procés Constituent», katalanez–, hitzik egiteko modurik ez zenuen izan. Guk, berriz, jakin nahi. Zertan da erran delako Prozesua? Erreterian (Gipuzkoa) izan zen mugimenduko Arcadi Oliveresek esan zuen**

Gizarte-babeserako gastua: EB-15-ren media eta EAEn arteko konparazioa, 2009

	EB-15 (EB-15 oinarria = 100)	EAE
BPG biztanleko	24.440,6 pps	27.300 pps
Gizarte-babeserako gastua biztanleko	7.252 pps	5.428 pps
BPG konparatua	% 100	% 111
Gizarte-babeserako gastu konparatua	% 100	<b>% 75</b>



**Defizita!**

Euskal Autonomia Erkidegoak, BPGa kontuan izanik, 8.049 pps biztanleko inbertitu beharko lituzke haren aberastasunaren arabera dagokion maila lortzeko.

**Biztanleko 2.612 pps falta dira!**

ITURRIA: Eurostat eta Eustat.  
© Vicenç Navarro. *Observatorio Social de España.*

**Prozesua mugimendu politiko-soziala dela, Kataluniaren aldaketa sakona dela helburu...**

Nazkamenetik sortu da mugimendua. Herri xehea nazkatuta dago, kokoteraino, Espainiarekin eta Katalunia ofizialarekin... Bai, bai, gero eta gehiago gara Katalunia ofizial horrek ez gaituela ordezkatzen sentitzen dugunok. *Procésa* ez da alderdi politiko, eta ez du horretarako asmorik ere. Mugimendu politiko-soziala da, bere burua herri xehearen zerbitzura jarri duena, Kataluniaren ordezkaritza egiturak aldatzea helburua duena. Egitura horiek demokraziaren ikuspegi oso-oso murrizta dute. Politika ez da alderdietako eliteen politikakeria. Sistema demokratiko batean, subirano-

tasuna biztanleriaren esku da, eta biztanleria horretako gehiengoa herri xehea da. Espainiako gainerako herrialdeetan gertatzen den moduan, Katalunian ere ordezkaritza sistema oso neurri apalean da demokratikoa. Hauteskunde legeak nekez dira proportzionalak, eta prozesu demokratikoa ez da lau urtean behin boto ematea besterik. Lau urtean ez da beste bitartekorik, nahiz eta gobernuak etengabe abiarazten dituen politika publikoak –eta horretan ari da oraintxe bertan ere–, baina horretarako herriaren agindurik batere jaso gabe! Lau urte egon behar omen dugu zain! Demokrazia, ordea, hori baino askoz gehiago da, erabakitze eskubidea da, zuzen-zuzen eta itzulingururik gabe erabakitze. Ho-

rretarako daude erreferendumak, udal-erri mailakoak, edo estatu mailakoak. Horretarako dago demokrazia zuzena, ordezkatzailerak, hauteskunde lege proportzionalak dituenak, hedabideetan dibertsitate ideologiko benetakoa erakutsiko duena, Espainian eta Katalunian dagoen diktadura mediatikoa deseginiko duena, eta alderdi politikoetan gertatzen den diru pribatuaren eragina ere ezerezean utziko duena. *Procés* mugimendua herri xehearren esanetara dago, arestian ere esan dudanez, eta nazkamen hori baliatu nahi du egoera hau muturrera eraman eta iraultzeko, presio bidez eta bortxarrik gabeko herri mobilizazio bidez, Katalunian egoera errotoik alda dadin.

**Pasadizo bat kontatu zenuen zure hitzaldian. «Muxu baten historia» izan liteke.**

Artean haurra nintzela, zazpiren bat urte nik, diktadura faxistako polizia gris haie-tako batek zaplaztekoa eman zidan, katalanez hitz egin nuelako! Grisak txakurren moduan ez hitz egiteko esan zidan, hitz egiteko kristauaren legean, eta nik, aurpegian ttu egin nion. Kuartelera eraman ninduen, eta gurasoei hots egin zieten, nire bila etor zitezten. Nire gurasoak zigorra jasotakoak ziren Errepublikak eta Kataluniako Generalitat lagundu zituztelako, eta jasotzera etorri zitzaizkidanean, amak ni hartu eta inork inoiz Katalunian eman duen muxurik handiena, eta politikoena, eman zidan polizia haien aurrean, harro, bere umeak jokatu zuen moduagatik. Kasua ez zen ezohikoa...

**Zer diozu Euskal Herriaz, gure ekonomiaz eta politikaz?**


Nire ezaupidea mugatua da, tamalez, eta ezaupide mugatu horretatik ari naiz. Nolanahi ere, uste dut ezker abertzaleak akats handia egin zuela armen bidea segitu zuzenean. Uste dut, jokamolde horrek Espainiako eskuina indartu zuela, zeharka. Espainiako eskuinak biolentzia horixe besterik ez zuen behar bere biolentzia zu-

## «Espainiako eskuinak ezker abertzalearen biolentzia behar zuen bere biolentzia zuritzeko»

ritzeko. Ezker abertzaleak bestelako estrategia du orain, eta pozten naiz, bere eragin indarra ere handitu egin delako. Nik esango nuke Euskal Herrian ere lan asko dagoela egiteko. Kontua ez da, bakarrik, nola artikulatuko den Espainiarekin, eta dena delako estatuarekin, Euskal Herrian bertan indar korrelazioa nola dagoen ere aintzat hartu beharko da. Euskal Herriak, esaterako, Katalunian askok nahiko luke ten finantzazio sistema du, baina, hala ere, zuen herrialdean bertan ere, biztanleko duzuen gastu publiko soziala ekonomia-aren garapenaren mailari dagokiona baino txikiagoa da. Eta hori ezin lekiok leporatu Espainiari, estatu honen mende egoteari. ■

## ALTERNATIBAK

«*Hay alternativas* (Badira alternatibak) liburua osatu nuen Juan Torres eta Alberto Garzonekin elkarlanean. Aitzinsolasa, Noam Chomskyk egin zigun... Lehenengo, argialetxeak –Aguilar etxeak– baietz esan zigun, nahi zuela publikatu. ‘Espainian lana eta ongizatea sortzeko proposamenak’ zioen gure lanak, izenburu nagusiaren ondoan. Liburuaren kaleratzea iragarri ere egin zuten, webgune eta liburu-dendetan, eta, orduan, ezetz, argitaratzea atzeratzea erabaki zutela esan ziguten editoreek, baina bestelako azalpenik emateke. Jakina, ez zuten argitaratzeko asmorik. Ideia alternatiboak plazaratzea inoiz baino beharrezkoagoa da, eztabaida politiko eta sozialean pentsamendu bakarra nagusi baita. Aldiz, guk gure lana ezin argitaratu! Zer egin genuen? Sarean jarri PDF formatuan, urrik, eta Sequitur argialetxearekin paperean atera, 10 eurotan. Jendeak jakin beharra du benetan zer gertatzen ari den».



# Zuhaitzaren erorketa

GARAZI KAMIO

IDAZLEA

**B**eti uste izan duzu memoria ona zenuela. Beti. Sekulakoa zen, ez zuen parekorik. Genetikak ez zizun hutsik egin. Tamalez, gaur teoria hori lehertu egin zaizu buru barruan. Ez duzu ezandarik entzun baina bai, memoriak kale egin dizu.

Garai batean bihotzaren haustura entzuteko gai zinen. Hura bai danbatekoa. Lehenengoa, handiena. Ondotik etorri zirenek ez zuten hain soinu ozenik aterra. Mutuagoak izan ziren kolpeak; edo barruko gorreria handitzen joan zaizu, beharbada.

Irratiko albistegian ekologista talde bateko bozemailea hizketan ari zen. Amazonaseko zuhaitzen mozketak masiboa sorrarazten ari den ondorio latzak zituen hizpide.

Orduan hasi zara artile matazaren puntari tiraka.

Egiazki, zuri bost Amazonas aldean gertatzen denak. Ohartu zara urrun jazo ohi den edozer albistek ez dizula zimikorik txikiena ere egiten bihotzean. Berdin dizu erori den zuhaitz kopuruak edo zenbat futbol zelairen azalera hartzen duen oiha-galerak.

Baina haria ez da eten, eta tiraka jarraitu duzu.

Amazonasera egin duzu jauzi. Zuhaitzetik zuhaitzera, oharkabean arbola altu haiek utzi eta beste batzuk ekarri dituzu gogora. Etxe ondoko zuhaitzak hurbildu dituzu akordura.

Zuhaitzetik lurrera etorri zara, konturatu gabe. Eta zeure burua bakarrik egotetik lagunduta egotera pasa da. Ezkerrera begiratu eta hor ikusi duzu. Ezerezetik atera da bere irudia, zuk baimenik eman gabe.

Aspaldi da zure buruko artxibategi batean zokoratu zenuela. Denbora asko memoriako lehen lerroa hurbiltzen ez zitzaizula. Oroimeneko kaxa ia ikusezin batean utzi zenuen, betiko izango zena-ren asmoz eta ustez. Hautsez betetako kaxari, ordea, putz egin diozu konturatu gabe. Eta ohartu gabe etorri da pertsona hura aspaldi galdu zuen lekura.

Irri txiki bat sortarazi dizu oroitzapenetik berreskuratu duzun unean. Aspaldi ez zela zure baitan sortu zenuen gerrako frontera hurbiltzen. Aldatu dira gauzak, ordea: lubakitik barrena korrika ibiliko zinatekeen lehen; orain berdin litzaizuke bonbardaketarik krudelenean zure aurrean odolustuko balitz.

Hari matazari tenk egiteak lotsa ekarri dizu hurrena.

Akordura ekarri duzu telenobelako protagonista gisa sentitu zinen une hura. Haustura gertu zegoela bazenekien eta aktoreen pareko jarri zinen: negarrari emanda erregutu zenion beste aukera bat. Hura zen arrastaka ibili beharra...

Lotsa aurpegian gora sumatu duzu, baita ere. Begiak itxiarazi dizkizu. Negar haien ondoren etorri ziren esaldiengatik izan da. Aurpegian gora etorri dira haiek ere, oroimenetik irten eta gero. Notario baten aurrean sinatuko zenituzke garai hartan zenbait esaldi. Corín Telladoren liburuetan baino kolore arrosa gehiago

jarri zenizkien. Dena naufrago ez bihurtzearen. Jacques Brel berpiztuko litzateke horrenbeste aldiz errepikatu zenuen «ez nazazu utzi» hura beste behin errepikatu izan bazenu. *Ne me quitez pas*. Tellado eta Brel. Eklektikoa zara oraindik.

Eta ahaztu zenuen noizbait, kostata izan zen arren.

Noizean behin etorri zaizu akordura. Bide bera erabili duzu orain arte: burura ekarri; garai haiek gogoratu segundo pare batez; lotsa pasa (beste behin); eta buruan eskaini zenion kaxa txikira itzuli, hautsez bete dadin. Eta beste bat arte.

Gaur, aldiz, ez dizu min eman burura ekarri izanak. Beste zerbaitek egin dizu zimikoa bihotzean; eta horrek urduritu zaitu, atximurrak oinazea ekarri dizulako. Artilezko hari luzeak bere urtebetetzera eramane zaitu.

Iraila. Egunik ez, ordea. Egutegiak 30 lauki huts ditu orain. Lehen aldia da buruko ordenagailuak huts egin dizula. Baina berdin dio urtebetetzearen kontuak. Lehenengo hutsegiteak baino, amildegiak izutzen zaitu: etorriko diren hutsuneek, alegia. Akabo parekorik ez zuen memoria hura.

Eutsi diozu arnasari, ozta-ozta izan bada ere. Basoan erori den zuhaitz bakana izan da gaurkoa; ez da Amazonas izan. Badakizu ez duela inork erortzen ikusi; ezta entzun ere.

Besteek memoria ona duzula pentsatzen jarraituko dute.

Badakizulako inork entzun eta ikusi ez duen erorketa, teknikoki, ez dela erorketa izango sekula. ■

# BIZITZAKO GARAIAK (eta 2)

ISABEL TOMÉ  
ENPRESAKO MEDIKUA

**G**iza bizitza hiru adinetan banatzen da, eta garai bakoitzak bere ezaugarriak eta gorabeherak ditu. Aldizkariaren aurreko alean, banan-banan aztertu genituen aro horiek, eta batetik bestera igarotzeko aldiari (*krisia*) erreparatu genion. Artikuluaren bigarren zati honetan, nagusi-garaian izaten diren aldaketek, eta adina lanlekuan kudeatzeko moduez jardungo dugu.

## Nagusi-garaia eta lana

Joan den mendeko laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik, enplegu-tasa handiagoa lortzen eta erretiratzeko eguna atzeratzen saiatu izan dira, nabarmen, bai estatuetako bai Europako politikak. Azken urteotan, arian-arian, lana uzteko batez besteko adina atzeratuz joan da.

Europa 2020 estrategiak enplegu-tasa %75era igo nahi du 20 eta 64 urte bitarteko herritarren artean. Hori lortzeko, Europako herritarrek denbora gehiagoz lan egin beharko dute.

Baina, horretarako, lanlekuan ere beste neurri batzuk hartu beharko dira; besteak beste, lan-baldintzak hobetzea, adina hobeto kudeatzea eta lanerako gaitasuna pertsonaren bizitza osoan zehar sustatzea. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak iritzi-galdeketa bat egin du, eta, han ageri denez, EBko herritarren gehiengo handi batek uste du osasun- eta segurtasun-arloan ondo jardutea garrantzitsua dela jendeak denbora gehiagoz lan egin dezan erretiratu baino lehenago.

## Langile nagusiak eta lanlekuak

### ADINA ETA PRODUKTIBITATEA

- Adinaren eta produktibitatearen arteko lotura konplexua da, adinak baititu abantaila batzuk: esperientzia praktikoa, lana oso ondo ezagutzea, lanean iaioa izatea, ezaguera espezializatuak, egokitze gaitasuna eta, konpentsazio-estrategiak erabiltzea

(gaitasun funtzionalen galeraren betegarri-edo). Egia al da, hortaz, adinekoek, orokorrean, gazteek baino gutxiago produzitzen dutela? Ez dago horren froga garbi-garirik.

### ABSENTISMOA

- Begiratzen baldin badugu ea osasun-arazo bat izan duten langileen artean zenbatek ez duen bazarik hartu, ikusiko dugu ehunekoak nahiko antzekoak direla adin-talde guztietan (%41-42 bitartean).
- Ikusi da, era berean, egun bat edo gehixeagoko gaixotasun-bajak geroz eta gutxiago hartzen direla adinean aurrera egin ahala (%46tik 36ra), baina hilabete edo gehiagoko gaixotasun-bajak, ordea, ugari egiten direla (%13tik 23ra).

### ISTRIPUAK

Ikus dezagun zer dioten azterlanek:

- Langile nagusiek, oro har, lankide gazteek baino istripu gutxiago izaten dituzte.
- Langile nagusienek, ordea, istripua izanez gero, lesio larriagoak izaten dituzte (betiko ezintasuna, gorputz-adarrak galtzea edo heriotza).

### LANEKO ESTRESA

Estresa eragiteko moduko zein arrazoi berezi egon daiteke adineko langileen artean? Lanean gora egiteko edo prestakuntzarako aukerarik ez izatea eta aldaketa teknologikoetara egokitze zailtasunak.

## Adinarekin zerikusia duten aldaketak

Lehen esan dugunez, adinean aurrera egin ahala, badira hainbat ontasun areagotu egiten direnak edo orduantxe agertzen direnak lehenengoz, adibidez: jakinduria, pentsamendu estrategikoa, gauzak osotasunean hautematea eta eztabaidarako gaitasuna. Laneko esperientzia eta eza-guera teknikoak ere metatu egiten dira urteekin batera. Era berean, badira datu batzuk adierazten dutenak 70 urte beteak izan arte etekin kognitiboa ez dela gehiegi urritzen, baina, hori bai, gaitasun funtzional batzuek bai egiten dute behera, batez ere gaitasun fisikoek eta zentzumenek.

Gaitasun funtzionalen artean adinak eragiten dituen aldaketa horiek ez dira beti berdin gertatzen; ikusi egin behar bakoitzak zein bizimodu, nutrizio, baldintza fisiko, gaixotzeko joera genetiko, heziketa-maila, lan eta inguru dituen. Alde nabarmenak daude pertsona batetik bestera. Gainera, osasuna aurretiaz nola zaindu ote dugun ere, bada kontuan hartu beharrekkoa. Gaitasun funtzionalen beharaldi hori atzeratzeko eta estu mugatzeko aukera ere badago, ohitura osasungarriak baldin baditugu; adibidez, sarri kirola egitea eta garbi jatea.

## Lan egiteko gaitasuna eta lanean gora egitea

Lanerako gaitasuna da lanaren eta baliabide pertsonalen arteko oreka; lana eta baliabide pertsonalak ondo uztartzen direnean, lanerako gaitasun handia izango dugu. Oinarrian, faktore hauek eragiten dute gutako bakoitzaren lanerako gaitasunean:

- osasuna eta gaitasun funtzionalak
- norberaren gaitasuna
- baloreak, jarrerak eta motibazioa
- lanaren beraren gauza batzuk, hala nola, ingurua, lana bera zer den eta zer eskatzen duen, antolaketa, laneko komunitatea eta lidergoa

Adina kudeatzeko orduan, garrantzi handia dauka lanerako gaitasuna susta-

zteak. Kontzeptuak berak –lanerako gaitasunaz ari gara– esan nahi du lanlekuan hainbat gauza egin daitezkeela gaitasun hori sustatzeko, baina lanaren dimentsio guztiak hartu behar direla aintzakotzat. Lanerako gaitasuna sustatzeko, derrigorra da administrazioaren eta langileen arteko lankidetzak, eta horrek esan nahi du lidergo sendoa behar dela eta denek parte hartu behar dutela.

## Adinaren kudeaketa lanlekuan

Lana antolatzeko orduan adina ere kudeatu behar badugu, adinarekin zerikusia duten faktoreak eguneroko kudeaketan ere izan beharko ditugu kontuan, baita lan-sistemetan eta bakoitzari agintzen zaizkion zereginetan ere. Hauek dira adinaren kudeaketaren dimentsioak:

- zahartzea zer den hobeto jakitea
- zahartzaroaren aurrean, jarrera ekitatiboak hartzea
- langileei aginduak emateko ardura daukaten zuzendarientzat, adina kudeatzea
- giza baliabideen politikan ere adinaren kudeaketa sartzea
- lanerako gaitasuna sustatzea
- etengabe ikasten jarraitzea
- adinekoentzako moduko lan-sistemak ezartzea
- erretirorako igarobidea seguru eta duintasunez egitea

Kasurik onenean, adinaren kudeaketak darabilen ikuspuntuak bizitzaren fase guztiak hartuko ditu eta aukera-berdintasuna sortuko du adin-talde guztietarako.

Adina kudeatzeko tresna batzuen adibideak dira honako hauek:

### • Adin-profilak egitea

Informazio-bilketa bat da, jakiteko ea langileak zein adin-taldetakoak diren. Lanlekuan adinaren aldetik dagoen dibertsitatea neurtzen laguntzen du. Bi helburu izaten ditugu adin-profilak egiteko: batetik, plangintza estrategikoa hobeto egitea; bestetik, eraba-

kiak hobeto hartzea honako esparri hauetan: kontratazioa, langileen mantentzea, erretiratzeko gaitasunak eta gaitasunen garapena.

### • Gaitasunen ebaluazioa

Kontua da jakitea langileen artean jarreretan eta gaitasunetan zein hutsune dauden, etekina hobetzerren edo garapen handiagoa lortzerren. Gaitasunen ebaluazioa oso tresna baliagarria da langileen ordezkapena eta karrera-garapena planifikatzeko, eta oinarri bat ere bada, prestakuntza pertsonalizaturako eta garapen profesionalerako. Gainera, adineko langileak dauden lekuetan, haien gaitasunak aldaketa teknologiko berrietara egokitzeko balio dezake, edo enpresa barruan beste nonbaitera mugitu ote daitezkeen jakiteko, edo beste karrera-aukera batzuk eskaintzeko.

### • Lanerako gaitasuna neurtzeko indizea

Lanlekuko Osasun Institutu Finlandiarrak sortu zuen, langile bakoitzak lanean zein gaitasun duen neurtzeko. Galdera-sorta bat da, lanerako gaitasuna ebaluatzen duena. Bakoitzak bere burua ebaluatzen du, hori da oinarria, eta helburua da jakitea zer egin daitekeen lanerako gaitasuna urritu ez dadin.

### • Ezagutza transferitzeko tresnak

Adineko langileek metaturik daukaten jakinduria ez galtzeko. Adibide batzuk:

- lan-taldeetan, adin ezberdinetako jendea sartzea
- tutoretza eta orientazioa eskaintzeko programak

### • Lanpostuen txandakatzea eta berri-zendapenak

Hainbat gauzatarako erabil daiteke: lan-karga arintzeko, lan estresagarriaren edo akigarriaren ondorioak ahalik eta gehien leuntzeko, eta baita adineko langileei beren gaitasunen araberako lanak egiteko aukera eskaintzeko ere. ■

# Puntuazioaren oinarrizko arauak (1): esaldien artekoak

JUAN GARZIA

IDAZLEA

**P**untuazioaren eta joskeraren arteko erlazioez aritu gara joan den urtean IVAPEk antolaturiko ikastaro-mintegietan, eta han luze-zabal landutako kontuen sintesi ia *minimalista* bat dakart orain orriotara, funtsezkoena bilduz. Ea baliagarri zaizuen. Alde batera utziko ditugu puntuazioaren izaera eta historiari dagozkion kontuak, eta haren inguruko gaizki-ultertuak, eta zuzenean ekingo diogu puntuazio estandarren erabilerari.

## Esaldia (eta puntua)

Lehenik eta behin, esanahiaren, sintaxiaren, intonazioaren eta, beraz, puntuazioaren unitate nagusia zein den jakin behar da. Iradoki dugun moduan, esanahiari zein sintaxiari zein intonazioari begiraturik defini daiteke delako unitatea. Beraz, zorionez, inork ez du izaten arazorik unitate hori identifikatzeko: esaldia.

Lehenbiziko zeregina, bada, esaldia den unitate hori puntuazioaz (ere) garbi markatzea da. Parentesi artean utzi

dugun *ere* horrek zera adierazi nahi du: puntuazio egokiaren laguntzarik gabe ere hainbestean bereizten direla irakurketan zenbait esaldiren mugak, baina ez inondik inora ere guztiak edo gehienak. Alegia, balitekeela kasu batzuetan puntuazio egokiaren presentzia ez hain erabakigarri izatea (erredundantea delako kasu horietan, bestela ere argi geratzen baita esaldibanaketa), baina, gehien-gehienetan, puntuazioak bakarrik adieraziko digula esaldi bat amaitu dela eta beste bat hasi.

Aurrera baino lehen, argitu beharra dago, terminoek nahas ez gaitzaten, *perpau* guztiak ez direla *esaldi*. Zehatzago: *mendeko perpauak* ez dira esaldi, esaldiaren osagai baizik. Mendeko perpau bat edo gehiago daraman perpau nagusia ere ez da bera esaldi: nagusiak eta mendekoak biltzen dituen zer osoa da kasu horretan esaldia (alegia, *perpau konposatu* delakoa). Jakina, mendekorik ez bada, mendeko ez den perpau hori da esaldia (*perpau bakun* delakoa, alegia).

Sintaxiari begiraturik, bada, honela bil litezke esaldiaren osaera-aukerak:

ESALDIA: (P<sub>mendeko</sub>) P (P<sub>mendeko</sub>)

Puntuazioaren zereginetarako, berdin dio nola osaturik dagoen barnean esaldi bakoitza (perpau bakunez zein perpau konposatuz): denak dira esaldi, eta denei dagokie, beraz, esaldien arteko puntuazioa. Hasieratik adierazi dugun moduan, esaldia den sintaxi-unitate hori esanahi-unitate ere bada. Hori kontuan hartzen ez duen itzultzailea, esate baterako, gaizki ari da, esalditik beheragoko osagaiak

esaldiaren esanahia osatzeko zerak baino ez baitira: esanahia, esaldiak du. Irudi batez: etxea esaldia da, eta haren adreiluak, berriz, azpiko osagaiak.

Eta, jakina, intonazioak ere markatzen ditu esaldiaren mugak, esaldi bakoitzaren amaieran *inflexio* (doinu-gorabehera) jakin bat eginez doinuan, beheeranzkoa. Halako marka akustikoei *tonema* esaten zaie, eta fonemak fonetikan direnaren gisakoak dira prosodian.

Puntuazioak, azken batean, halakoak islatu baino ez du egiten. Zorionez (!), inor gutxik *puntuatzen* du gaizki *hitz egitean*. Belarriak (barnekoak batez ere) guztiz kamusturik ez badauzkagu, ondo puntuatzeko, oro har, aski da testuaren *doinua* entzun eta zuzen transkribatzea.

Esaldi bat beste baten segidan idazteko, beraz, zein da puntuazio egokia?

Bigarren esaldia juntagailurik gabe gehitzen bada, puntuazio-marka behinena *puntua* da [.]

Zuhaitz handi baten ondoan, bazen etxola bat, gehienbat lastoz egina. Han bizi ziren, uda eta negu.

Gutxitan azpimarratzen da, baina esaldiak garbi bereizteak duen garrantzia are garbiago ageri da halakoetan, beste marka bat ere gaineratzen baita automatikoki puntuarekin batera. Esaldiaren hasierako letra larria. Hala, marka bakoitza da esaldien arteko hori: *puntua gehi hasierako letra larria*.

## Esaldi-alborakuntza

Esaldien arteko marka bakarra puntua balitz, ez genuke joskera-aukera handirik, eta testu guztia joango litzateke monotonoki zatikatua, telegramen estiloan. Esaldien luzera eta osaera desberdinek bakarrik hautsiko lukete monotonia hori.

Zorionez, bada beste markarik esaldien arterako, puntuak bezala esaldien arteko muga garbi uzten duena: *puntu eta koma*. Esaldi-elkarketa mota horri *alborakuntza* deritzo.

Puntuaren kasuan ez bezala, puntu eta komarekin ez da letra larriz markatzen esaldi gehituaren hasiera. Izan ere, puntuaren aldaera arintxoagoa da puntu eta koma. Zentzu batean, funtzio berekoak dira marka biak, baina puntu eta komaz elkartzen diren esaldiek beren arteko lotura estuagoa adierazten dute puntuz elkartzen direnek baino. Hartara, badugu aukera gehixeago esaldi-segidak antolatzeko:

[Esaldi<sub>1</sub>] puntu [Esaldi<sub>2</sub>] puntu eta koma [esaldi<sub>3</sub>]...

Hala, zehatzago adieraz daitezke esaldien arteko mailak eta loturak:

[Esaldi<sub>1</sub>].[Esaldi<sub>2</sub>].[Esaldi<sub>3</sub>].  
[Esaldi<sub>1</sub>].[Esaldi<sub>2</sub>;esaldi<sub>3</sub>].

Puntu eta komak, bestalde, badu kide hurbil-hurbil bat<sup>1</sup>, maila berekoa baina ezaugarri berezi bat duena, badu-eta marka horrek lokailu batzuenaren gisako *esanahia* ere: *bi puntu*. Ikus dezagun adibide pare bat, esaldi berez osatua:

Hamabiak dira: laster etorriko da. [Hamabiak dira; *beraz*, laster etorriko da].  
Laster etorriko da: hamabiak dira. [Laster etorriko da; *izan ere*, hamabiak dira].

Bitxi dirudi kontuak, bi puntuen alde bietara agertzen baitira adibideetako bi esaldiok, baina ez da misterio; kasu bietan, nolabaiteko kausaren eta nolabaiteko ondorioaren arteko erlazioa adierazten da, hurrenkera gorabehera.

Lehenbiziko adibidean, kausa>ondorio hurrenkera dugu; bigarrenean, berriz, alderantziz, ondorio<kausua hurrenkera.

Bigarren horretan, *azalpen* esan ohi zaio ondorioaren kausari. Kontuak kontu, bi puntuek hor kausa-ondorio erlazio esplizitua markatzen dute, usteen kontrako litzatekeen kasuan ere:

Euria ari du: mendira goaz.  
Mendira goaz: euria ari du.

Kontrastean, esaldien edukiengatik guk kausa-ondorio interpretazioa egiteko joera nabarmena genukeen kasuetan ere, puntu eta komak ez luke adieraziko kausa-ondorio erlaziorik, puntuazio-marka horrek

ez baitu bere baitan halako esanahirik. Alegia, interpretatzen duenak egiten du lotura, semantikaz eta pragmatikaz; puntuazioak ez du halakorik esplizitatzen:

Hamabiak dira; laster etorriko da. [bi kontu, segidan adieraziak; hor konpon nola lotu]  
Laster etorriko da; hamabiak dira. [bi kontu, segidan adieraziak; hor konpon nola lotu]

Horra, bada, esaldi-alborakuntzari dagokiona.

### Esaldi-juntadura

Esaldiak elkartzeko beste modua *juntadura* deritzona da. Izenkidetasunak adierazten duen moduan, *juntagailu* bat erabiliz eratzen den esaldi-elkarketa da. Juntagailu nagusia *eta* da, eta hura erabiliko dugu adibideetan, baina jokabide bera da aplikagarri, funtsean, gainerako juntagailuekin ere: *baina*, *edo*, *baizik (eta)*, *(e)ze(n)*<sup>2</sup>.

Juntagailuen funtzioa kategoria gramatikal bereko bi osagai (edo gehiago) lotzea da: bi izen, bi adjektibo, bi adberbio, bi aditz, bi perpaus...

Esaldiaren osagaiok juntatzen direnean, aski da juntagailua ezartzea bien artean. Zer gertatzen da, ordea, juntatzen direnak, ez bi esaldi-osagai, baizik bi esaldi oso direnean? Horretarako ere juntagailu hutsa erabiliz gero, noiznahi gerta daiteke ez jakitea zein diren juntatzen direnak: esaldi osoak ala osagaiak. Horregatik, garbi utziko badugu esaldi-juntadura dela, juntagailu soila baino *goragoko* marka bat behar dugu.

Alborakuntzan, puntu eta koma markak garbi uzten du koma baino gehiago dela, eta horregatik baliatzen da esaldi-elkarketarako (esaldi barneko utzirik koma). Kasu honetan, berriz, abiapuntua juntagailua da, eta ez koma. Nola konpontzen du puntuazioak auzi hori?

Horri erantzun aurretik, ikus dezagun nola koma eta juntagailu soilak baliokide diren mailaz.

Bi osagai baino gehiago juntatzen ditugunean, komak hartzen du juntagailu soilaren lekua:

kaleak **eta** plazak  
kaleak, plazak eta parkeak

Hala, juntagailuaren maila igo nahi badugu, haren balioa bikoizteko modurik sinpleena balio bereko zerbait gehitzea da, hots, koma. Eta horixe da, hain zuzen, esaldi-juntadura garbi uzten duen marka konposatua (eta, jakina, halakoe-tan erabiltzen dugun intonazioa islatzen duena): [koma + juntagailu]<sup>3</sup>:

Han ekin zioten oihuka batzuek, **eta** besteek berehala alde egin zuten.

Komarik ezean, bestalde, nahasbidea genuke hor (eta beste hainbatetan), juntadura *batzuek eta besteek* segida dagokiola adieraziko baikenioke hor irakurleari, nahiz eta *gero* jabetu, segidakoarengatik, ez dela hala. Irakurketa eroso oztopatu-tuko litzatekeela, alegia, irakurlearen esku utzirik bi juntadura mailen bereizkuntza egitea, eta lan hori testugilearena da, gizalege jatorrean.

Laburturik bada, *esaldiak* elkartzen direnean, puntuazio-marka hauek dira arauzko esaldion artean:

- alborakuntzaz: [;] (puntu eta koma)
- juntaduraz: [, **eta**] (koma gehi juntagailua)

Bi esaldi baino gehiago elkartzen direnean (esaldi-segida), marka biak erabiliko ditugu:

Ezkerreko bidea zabalxeagoa zen; itxura batean, gora egiten zuen, **eta** handik jo genuen.


Horra, bada, esaldiak elkartzen direneko puntuazio oinarritzkoa. Hartatik desbideratzeko aukerez edo lizentziez ere jardun genezake, tarte luzeagoa bagenu artikulu honetan, baina garbi gera bedi erreferentziatzeko araurik gabe (oinarritzko eredu estandarrik gabe) ez genukeela nondik desbideraturik ere. ■

<sup>1</sup> Marka biek ere badituzte, beste testuinguru batzuetan, hemen ikusten ari garen esaldi-alborakuntza funtzio honetaz gainera, beste funtzio batzuk.

<sup>2</sup> *Ezen* partikulak baditu beste erabilera batzuk ere, hala nola *-la* menderagailuarekin batera perpaus osagarriak eratzea, eta *bait-* zein *-n* menderagailuekin batera ondoriozkoak. Hemen, alde batera uzten ditugu mendeko perpausen halako markak (*zeren*, *nahiz...*), mendeko ez diren perpausen elkarketaz ari baikara.

<sup>3</sup> Aipatu beharra dago jende askok sartua duela buuruan, auskalo nondik, zer, eta *juntagailuaren aurrean ezin dela komarik idatzi!* Hori, izatekotan, esaldi-barneko osagaiak juntatzen diren kasuari dagokio, eta ez esaldiak juntatzen diren kasuari, ikusten ari garenez, arauzkoa baita orduan koma hori.





# 34. autobusa


ADRIANO DE MATA

IDAZLE-ESKOLAKO IKASLE OHIA

6:33. Egunero legez, argitu orduko esnatu da Kattalin. Erretreta hartu zuenetik, duela urtebete doi, betiko orduan iratzartzen du barneko ordulari fidelak. Goiz den arren, igartzen du egun polita izango dela, argitsua, eguzkitsua. Kattalin umore onez jarri ohi dutenen legekoa. Eguneroko moduan, leihoa ireki eta itsasaldetik datorren haizea arnastu du, gustura. Iparraldeko haizeño freskoak lagundu egingo du azken egunotako sargoria arintzen.

Goizeroko dutxa hartuta, kafea prestatu eta balkoian jarri da. Betidanik izan da emakume lasaia, eta edozertarako presaturik zen senarrak ez zuen sekula aldarazi. Orain, beraz, bakarrik dagoela, patxadaz bizi nahi du. Astiro. Lasai.

Egunero bezala, irten da etxetik, errepide nagusian 34. autobusa hartzera. Garaiz iritsi nahi du ospitalera, 8:30etan puntuan, gaixoei gosaria banatzen hasteko. Boluntarioa da Kattalin ospitalean eta, gosari-bazkariekin laguntzeaz gain, adineko gaixoen orduak alaitzeaz ere arduratzen da, eurekin kartetan-eta arituz. Egingo duen beroa aurreikusita, soineko argia jantzi du, lepoko zapiarekin zein galtzerdiekin ezin hobeto ematen duena. Panpox. Betiko moduan. Sudur luzekaren pean, ezohiko hortz zuri-zuriak erakusten ditu Kattalinen irribarre betierekoak. Takoi altu samarren gainean tente doa, begirada aurrean duen horretan finkatuagatik inguruko edozeri adi. Egunero ikusi arren, harritu egiten dute erakitzen ari diren etxe ugariak. Hona bizitzera etorri zenean, ezkondu berritan, etxe bakanetako bat zen berea, bakarra ia. Egun, aldiz, etxez josita dago ingurune osoa; berdeguneak dira orain eskas.



Egunero bide bera, ordu berdinean, patxada antzekoan. Hala ere, lehen aldiz ikusi du lore more-arrosa berezi hori, pinpilinpauxa goiztiarren bidari jarraitzean. Aho bete hortz geratu da Kattalin. Ez baitu sekulan ikusi. Begira-begira geratu zaio. Eder deritzo loreari, naturaren garaipena gero eta urriago den berdearen erdian. Erlea pausatu zaio gainean. Egin beharrekoak eginda, hurrengo lorera egin du erleak, eta hala erakutsi Kattalini halako beste lore-sail bat, apur bat urrunago. Harriturik dago Kattalin. Naturaren edertasunaz gogoetan dabilela, errealitatera ekarrarazi du autobusaren hotsak. Arinago joatea izan da lehen erreakzioa. Hanka geldu geratu da, ordea. Bizitzan lehen aldiz egin dio ihes autobusak.

Errepidera ailegatuta, zain geratu da. Autobusa iritsi, eta igo. Arrotz zaizkio bidai-deak, ezezaguna gidaria. Bideko etxeak, dendak, kafetegiak ere, berriak erabat; ez ordea kaleen izenak. Ez da 34.ean igo, ala? Halako batean, errepideko lanak dirrela-eta ibilbideko azken geltoki bietaraino ezin dela heldu iragarri du gidariak. Beste bidaiariak ez bezala, pozik jaitsi da Kattalin autobusetik. Irribarre betierekoa ezpainetan. Oinez egin beharko biderearen gainerakoa. Ez dio axola.

8:36. Berandu da. Nondik jo behar duen ere ez du argi Kattalinekin. Aspaldi ez da herriko alde honetara etorri. Ibiltzen hasita, ostera, berehala kokatu du bere burua. Den-dena aldatu arren, ezagun du lekua: betiko tokian dago parke-

txoa; betiko izkinan, gaztetan udako egarri amaiezina asetzen zien iturritxoak. Haatik, lehen baino garaiagoak iruditzen zaizkio zuhaitzak, oparoago itzala. Txikitako lekuak ezagutu ditu: hortxe zegoen Sonsolesen ezkutaleku gogokoen, hor aitaren jarleku kuttuna, hantxe hautsi zuen hanka Dionisiok... Umetako oroitzapenen artean igerian, aurrera darrai Kattalinekin. Eta han, amama gaixoarenera joateko aldatsaren hasieran, begiz jo du gazte garaian pastelik goxoenak egiten zituen gozotegia. Inguruotako denden artean gaur arte irau duen bakarra, antza. Erakusleihu bera, langileek uniforme bera, garai hartako itxura erakargarri bera. Usaina ere berbera dela ematen du.

Gogoko pastelaren izenik oroitzea ez zuen sekula lortu Kattalinekin umetan. Orain lez. Eta, umetan bezala, ezker eskuko behatz erakusleaz eskatu dio salmahaiaren atzeko emakume zaharrari. Ordaintzeko diru bila hasi, eta topatu ez. Lasai, ordainduko didazu bihar esaldi ezagunak, ahotsaren tonu goxo berak, irribarreez batera, gazte garaira ekarrarazi dute Kattalin. Kalera jo, gaztainondo lerdaren itzalpean jarri, eta merengeari hozkaka ekin dio.

Amama ikustera joango gara ospitalera, ama? esan duen neskatoarengan ikusi du bere burua. Une batez, bien begiradek elkar jo dute. Irribarre egin dio Kattalinekin neskatoari. Eta erabaki du gaur ez dela ospitalera joango. Behingoagatik. ■

# Hizkuntza prestakuntza: ELEBI eta berariazko ikastaroak

ARANTXI ORBEGOZO

EDURNE ROMANO

HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA ETA NORMALIZAZIO  
ZERBITZUKO TEKNIKARIAK (IVAP)

Hizkuntza ikastearen eta erabiltzearen arteko jauzia izan da azkenaldi honetan normalizazioan dihardugun langileen kezka eta erronka handienetarikoa bat. Aspaldian ari gara entzuten administrazioiko langile gehienek egiaztatua dutela haien lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna eta, hala ere, euskara gure lan-hizkuntza izatetik urrun gaude oraindik. Egin beharreko bide luze eta bizi horretan, IVAPen, lanean euskaraz jarduteko berariazko ikastaroak zein ELEBI deituriko proiektua ditugu oinarri sendoenak. ELEBI izeneko egitasmoan, talde txikietan langileei beren eguneroko lan jardunean laguntzeko bidea eraiki da. Hizkuntza maila bera edo antzekoa eta lan eginkizun berbera duten lauzpabost langileko taldeak osatzen dira (gehienetan sail berekoak, baina tarteka sail artekoak ere osatu izan ditugu), eta haien lan esparruko dokumentu bat aukeratzeko da, benetan erabiltzen duten dokumentu bat, guztien artean lantzeko. Taldean, metodologia ondo ezagutzen duen tutore batek lagunduta, hiru hilabetez aritzen dira dokumentu hori idazteko dituzten zailtasunak eta garatu beharreko gaitasunak lantzen; horretaz gain, dokumentu hori haien beharretara egokitzeo bakarka aritzen dira tutorearekin, hilean bi orduz. Mintegiaren ardatza dokumentu bat zein ahozko jardura bat izan daiteke, talde bakoitzaren beharren arabera. Une honetan 257 langile ari dira horretan, 58 mintegitan banatuta.

Ia bi urte igaro dira egitasmoa abian jarri zenetik, eta arrakasta handia izan du, sailerako teknikariek taldeak osatzeko

ematen diguten laguntzari esker, tutoreen lan finari esker eta ikasleen konpromisoari esker. Jasotako inkesten emaitzak ezin hobekak izan dira, eta euskaldunoi askotan kostatzen egiten zaigun ezker oneko hitzak adieraztea, artikulua hau baliatu nahi dugu eragile eta partaide guztiak zoriontzeko.

Berariazko hizkuntza ikastaroak buruz idatziko dugu ondorengo lerrootan. Hizkuntza Prestakuntza Arloak duela lau bat urte hartu zuen lan hau bere gain; urte urte eskaintza zabaldu egin da, eta aurrerantzean ere bide beretik jarraitu dugu. Zabaldu, bai geografikoki, bai ikastaro kopuruari dagokionez. Orain arte Eusko Jaurlaritzako langileei eskainitako ikastaro guztiak Gasteizen antolatu izan ditugu; aurrerantzean, Donostian eta Bilbon ere eskainiko dira. Horrez gain, Herri Administrazioetako langile guztiei emango diegu gure ikastaroetan parte hartzeko aukera, orain arte ez bezala. 2014an, aurreko 16 ikastaro eta lineako 6 bideratuko dira.

Ikastaro gehiago ditugun honetan, hainbat berrikuntza txertatu ditugu:

- Batetik, ahozko jardura indartzeko, orain arte bigarren eta hirugarren hizkuntza eskakizuna dutenei zuzendutako ikastaroak genituen. Hemendik aurrera lehenengoa dutenentzat ere zerbait izatea garrantzitsua iruditu zaigu, langile batzuek, maila apala izanda ere, hizkuntza erabiltzeko beldurra gaindi dezaten. Kontuan izan behar dugu Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzaren hurrengo plangintzaldirako ildoetako bat jendaurreko lanpostuen ahozko jardura bermatzea izango dela, eta gure arloko helburuetariko bat, plangintza horretako helburuak lortzen laguntzea.

- Bestetik, hizkuntza lanbide dugunok joskeran eta morfosintaxian sakontzeko aukera izango dugu. 20na orduko bi ikastaro berrirekin, Juan Garzia aditua arituko zaigu irakasle.
- Bukatzeko, hizkera juridikoari lotutako ikastaro berri bat eskainiko dugu, laburra eta dinamikoa, eta hizkuntzalari bakoitzari bakoitzari zuzendua.

Aparteko aipamena merezi dute lineako ikastaroak. Horiek guztiak Moodle plataformara egokitu ditugu, eta datorren urterako, lehenengoz «Weberako nola idatzi» ikastaroa eskainiko dugu, Administrazio Hizkera Ataleko lankideek sortua.

Aurreko lerrootan 2014ko prestakuntzari lotutakoak aipatu ditugu, eta hurrengo urterako ildoak, 2015ekoak, zehaztu nahian gabilta orain. Interesgarria izango litzateke langileek benetan zer behar duten jakiteko modua zehatza izatea; orain arte, planifikatzeko orduan, gure iritziak behar zutena hartu dugu kontuan; baina, aurrerantzean, haien iritzia jaso nahi dugu, eskaintza langile talde bakoitzari ahalik eta ondoen egokitzeo. Horretarako, beharren diagnosian aurrerapausoak eman beharko ditugu, eta metodologia landua eta zehatza diseinatzea dagokigu orain; gainera, jakin badakigu prestakuntza ekintzek lanean duten eragin zuzena neurtzea ere oso garrantzitsua dela, eta horri buruzko hausnarketari ekin nahi diegu; ikusiko dugu denborak eta indarrak hori lortzeko aukera ematen diguten.

Edozein kasutan, ekain aldean, administrazioiko langileen beharrak zeintzuk diren jakiteko ahalegina egingo dugu solaskideen bitartez, urtetik urtera gure eskaintza eta zuen beharrak eta desioak ezkontzeko ahaleginetan. ■

# Ariketak83

## I. Aukeratu esaldi egokia Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* kontuan hartuz:

1. a) **Hatzazal** hauskorrak eta arrasto zuriak gerta daitezke giltzurrunek ez dituztelako gernuko proteinak behar bezala iragazten.  
b) **Azazkal** hauskorrak eta arrasto zuriak gerta daitezke giltzurrunek ez dituztelako gernuko proteinak behar bezala iragazten.
2. a) Atzoko udalbatzan, guztiok onartu genuen kale **estu** eta aldapatsuek arazo larriak sorrarazten dituztela gure herrian; ez ginen ados jarri, ostera, irtenbideak topatzen.  
b) Atzoko udalbatzan, guztiok onartu genuen kale **hestu** eta aldapatsuek arazo larriak sorrarazten dituztela gure herrian; ez ginen ados jarri, ostera, irtenbideak topatzen.
3. a) Herrialde pobreen dependentzia maila **handiagotu** egin da krisia hasi zenetik, eta batzuek diote, une honetara ailegatuta, zorra barkatzeak ez lukeela balioko dependentzia sistema horretan jarraitu ahal izateko baino.  
b) Herrialde pobreen dependentzia maila **haundiagotu** egin da krisia hasi zenetik, eta batzuek diote, une honetara ailegatuta, zorra barkatzeak ez lukeela balioko dependentzia sistema horretan jarraitu ahal izateko baino.
4. a) Eskolako psikologoak azaldu zigunez, haurrei txikitatik hitz egin behar zaie **heriotzeaz**, eta bizitzako beste aro baten moduan ulertzen lagundu.  
b) Eskolako psikologoak azaldu zigunez, haurrei txikitatik hitz egin behar zaie **heriotzaz**, eta bizitzako beste aro baten moduan ulertzen lagundu.
5. a) Hitzaldiaren bukaeran, berdintasun teknikariak nabarmendu du gaur ere gizon bat **hatzeman** dutela bikotekidea jotzea egotzita.  
b) Hitzaldiaren bukaeran, berdintasun teknikariak nabarmendu du gaur ere gizon bat **atzeman** dutela bikotekidea jotzea egotzita.
6. a) Gaurko saioan, inguru jakin batean jaio izanak norbanakoaren bizitzan eduki dezakeen garrantziaz **ausnartzea** izango dugu helburu nagusiena.  
b) Gaurko saioan, inguru jakin batean jaio izanak norbanakoaren bizitzan eduki dezakeen garrantziaz **hausnartzea** izango dugu helburu nagusiena.
7. a) Egindako balorazioetan askotariko iritziak entzun ohi ditugu, baina harri eta zur gelditu ginen denok lankide batek gure artean ideia **herexeak** daudela esan zuenean.  
b) Egindako balorazioetan askotariko iritziak entzun ohi ditugu, baina harri eta zur gelditu ginen denok lankide batek gure artean ideia **heretikoak** daudela esan zuenean.
8. a) Bozeramaileak gogorarazi zien agintariei **hibaiaren** ertzean industria kokatzea eragotzi behar dutela, landaretza eta fauna guztia suntsitu nahi ez badugu.  
b) Bozeramaileak gogorarazi zien agintariei **ibaiaren** ertzean industria kokatzea eragotzi behar dutela, landaretza eta fauna guztia suntsitu nahi ez badugu.

9. a) Aitortu beharra daukagu begiak **hetsirik** egin genuela ia bide guztia, sarraski kimikoak eragindako kalte izugarriei begiratzeko adorerik gabe sentitu baikinen.
- b) Aitortu beharra daukagu begiak **hertsirik** egin genuela ia bide guztia, sarraski kimikoak eragindako kalte izugarriei begiratzeko adorerik gabe sentitu baikinen.
10. a) Aldian-aldian entzuten da **hauzo lanean** oinarritutako mugimendu berri bat sortu dela. Hasiera batean, **hauzokoen** artean egindako lana adierazteko erabili ohi zen **hauzolan** hitza; gaur egun, ostera, lankidetzaren sinonimotzat hartzen da.
- b) Aldian-aldian entzuten da **auzolanean** oinarritutako mugimendu berri bat sortu dela. Hasiera batean, **auzokoen** artean egindako lana adierazteko erabili ohi zen **auzolan** hitza; gaur egun, ostera, lankidetzaren sinonimotzat hartzen da.

2. **Honako testu hau aldizkari honetako «Kontziliazioa edo lan-produktibitatea helburu?» erreportajetik atera dugu (26. orr.), eta 12 gramatika-akats sartu dizkiogu. Bila itzazu akatsok, eta, ondoren, zuzendu ariketa testu originalari begiratuta:**

### EGUZKI ORDUA

Euskal Herriko erlojuak eguzki ordua baino ordubete aurrerago dabiltsa neguan, eta uda, aldiz –udako ordutegiaren aldaketaren eraginez–, hiru ordu lehenago. Kontziliazioari eta ordutegiaren arrazionalizazioaren buruzko txostena onartu ondoren plazaratu ziren eritzi, ohar eta interpretazioen arabera, ordutegi nahas-mahas horregatik bazkaltzen da Hego Euskal Herrian –eta espainiar estatuan, orohar–, Europan beranduago baino. Erloju ofizialaren arabera, 14:00tan bazkaltzen ohi dugu, eta 21:00tan afaltzen. Aldiz, erloju biologikoaren arabera, 13:00etan genuke bazkari ordua, eta 20:00etan afaria. Adituen iritziko, horrek esan nahi du, biologikoki, Europan gainerako herrialdekin batera egiten ditugula bi otordu nagusiok. Ordea, erloju ofiziala agintzen duenez gure bizitza erritmoan, iluntzeko bederatzietan afaltzea goizeko 10.00etan lanean hastea ekarri beharko luke.

3. **Lotu hitz bakoitza bere definizioarekin:**

1. Norbaiti zerbait egitea komeni dela aditzera eman.
2. Zorroztasuna galdu.
3. Oinarri edo eredutzat hartzen denarekiko alde edo desberdintasunen bat duen beste era bat.
4. Era jakin bat emanez itxuratu.
5. Zerbaiterako bide bezala zerbait edo norbait erabili.
6. Edozein arazo edo jardun eztabaidagarri.
7. Adierazten den helburuaz soilik edo bereziki.
8. Zerbaiten balioa, kantitatea, kopurua, etab. txikitu edo gutxitu.
9. Maite edo gogoko den zerbaitekiko edo norbaitekiko lotura edo sentimenduzko erlazioa.
10. Gehitu, batez ere nolakotasunean.

11. Legeak edo moralak eragozten edo galarazten ez duena.
12. Adierazten den orokortasunetik edo arau komunetik gauza edo pertsona bat at utzi.
13. Norberaren edo norberaren ardurapekoen ekintzen erantzule izatea.
14. Elkarren arteko haserrea, eztabaida, borroka.
15. Ontzat emateko ekintza eta horren ondorioa.
16. Zaindu.
17. Aintzat hartua izatea merezi duena.
18. Zerbait burutzeko zailtasuna, oztopoa edota traba.



#### 4. Bete hutsuneak zerrendako hitzekin:

1. Kontratazioetan hizkuntza-irizpideak ezartzea \_\_\_\_\_ dela esan du Udalak.
2. \_\_\_\_\_ handiko lana da.
3. Azken aldi honetan ez dugu etxean \_\_\_\_\_ rik izan.
4. \_\_\_\_\_ k izango ditu dena ulertzeko.
5. EIMAKo liburuek Hezkuntza Sailaren \_\_\_\_\_ behar dute.
6. Zergak ordaintzetik \_\_\_\_\_ dute.
7. Lau aldundiek euskara indartzeko \_\_\_\_\_ sortu dute erakundea.
8. Testuan zenbait aldaketa egitea \_\_\_\_\_ digute.
9. Adimenaz \_\_\_\_\_ zaitez, ez indarraz.
10. Euskaltzaindia gure lau aldundiek sortu eta \_\_\_\_\_ zuten.
11. Hitz batek \_\_\_\_\_ dialektalak izan ditzake.
12. Ingurumen-inpaktua \_\_\_\_\_ nahi dute eta horretarako hainbat ekimen jarri dituzte abian.
13. Erakundeko ordezkariak elkartu ziren atzo kaltetuei babesia eta \_\_\_\_\_ adierazteko.
14. Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera \_\_\_\_\_ nahi du eta plan berri bati ekin dio helburu hori lortzeko.
15. Lan baldintza \_\_\_\_\_ k aldarrikatu dituzte sindikatuek.

- I.
1. b) **Azazkal** hauskorrak eta arrasto zuriak gerta daitezke giltzurrunez ez dituztelako gernuko proteinak behar bezala iragazten.
  2. a) Atzoko udalbatzan, guztiok onartu genuen kale **estu** eta aldapatsuek arazo larriak sortarazten dituztela gure herrian; ez ginen ados jarri, ostera, irtenbideak topatzen.
  3. a) Herrialde pobreen dependentzia maila **handiagotu** egin da krisia hasi zenetik, eta batzuek diote, une honetara ailegatuta, zorra barkatzeak ez lukeela balioko dependentziako sistema horretan jarraitu ahal izateko baino.
  4. b) Eskolako psikologoak azaldu zigunez, haurrei txikitatik hitz egin behar zaie **heriotzaz**, eta bizitzako beste aro baten moduan ulertzen lagundu.
  5. b) Hitzaldiaren bukaeran, berdintasun teknikariak nabarmendu du gaur ere gizon bat **atze-man** dutela bikotekidea jotzea egotzita.
  6. b) Gaurko saioan, inguru jakin batean jaio izanak norbanakoaren bizitzan eduki dezakeen garrantziaz **hausnartzea** izango dugu helburu nagusia.
  7. b) Egindako balorazioetan askotariko iritziak entzun ohi ditugu, baina harri eta zur gelditu ginen denok lankide batek gure artean ideia **heretikoak** daudela esan zuenean.
  8. b) Landaretza eta fauna guztia suntsitu nahi ez baditugu, **ibaiaren** ertzean industria kokatzea eragotzi behar dutela gogorazazi zien agintariei bozeramaileak.
  9. a) Aitortu beharra daukagu begiak **hetsirik** egin genuela ia bide guztia, sarraski kimikoak eragindakokalte izugarri begiratzeko adorerik gabe sentitu baikin.
  10. b) Aldian-aldean entzuten da **auzolanean** oinarritutako mugimendu berri bat sortu dela. Hasi batean, **auzokoen** artean egindako lana adierazteko erabili ohi zen **auzolan** hitza; gaur egun, ostera, lankidetzaren sinonimotzat hartzen da.

## 2. Aldizkariaren 26. orrialdea

- 3.
- |            |                 |                   |                |
|------------|-----------------|-------------------|----------------|
| 1. iradoki | 6. auzia        | 11. zilegi        | 16. artatu     |
| 2. kamustu | 7. berariaz     | 12. salbuetsi     | 17. duina      |
| 3. aldaera | 8. murriztu     | 13. erantzukizuna | 18. eragozpena |
| 4. eratu   | 9. atxikimendua | 14. ika-mika      |                |
| 5. baliatu | 10. areagotu    | 15. onespina      |                |

- 4.
1. Kontratazioetan hizkuntza-irizpideak ezartzea **zilegi** dela esan du Udalak.
  2. **Erantzukizun** handiko lana da.
  3. Azken aldi honetan ez dugu etxean **ika-mikarrik** izan.
  4. **Eragozpenak** izango ditu dena ulertzeko.
  5. EIMAKo liburuek Hezkuntza Sailaren **onespena** behar dute.
  6. Zergak ordaintzetik **salbuetsi** dute.
  7. Lau aldundiek euskara indartzeko **berariaz** sortu dute erakundea.
  8. Testuan zenbait aldaketa egitea **iradoki** digute.
  9. Adimenaz **baliatu** zaitez, ez indarraz.
  10. Euskaltzaindia gure lau aldundiek sortu eta **eratu** zuten.
  11. Hitz batek **aldaera** dialektalak izan ditzake.
  12. Ingurumen-inpaktua **murriztu** nahi dute eta horretarako hainbat ekimen jarri dituzte abian.
  13. Erakundeko ordezkariak elkartu ziren atzo kaltetuei babesa eta **atxikimendua** adierazteko.
  14. Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera **areagotu** nahi du eta plan berri bati ekin dio helburu hori lortzeko.
  15. Lan baldintza **duinak** aldarrikatu dituzte sindikatuek.

# IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



# «Honaino heldu gara, eta orain zer?»

Etorkizuneko ildo berri bila abiatu zen IVAP  
30. urteurreneko ospakizunaren karietara

MIEL A. ELUSTONDO  
ARGAZKIAK: ZALDI ERO

**H**ogeita hamar urte igaro dira 1983an sasoi hartako Eusko Jaurlaritzak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde, IVAP, abiarazi zuenetik. Urte asko –gizon-emakumeon bizitzan, oro har–, baina gutxi, aldiz, erakunde baten bizialdiari dagokionez, eta esan beharrik ere ez dago, hizkuntza baten berreskuratze prozesuari denaz bezainbatean.



Euskarak ondoko urteotan hartu behar dituen bideei buruzko mahai-ingurua egin zuen erakundeak urrian. Hasteko, ikus-entzunezko bat proiektatu zen, non euskalgintzan ari diren hainbat lagunek etorkizuneko ildoen gaineko gogoeta egin baitzuten. Eta ondoren, mahai-ingurua. Lau mintzaide izan ziren bertan: Patxi Baztarrrika, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Pilar Kaltzada, idazle, kazetari, eta komunikazio aholkularia; Lore Erriondo, UPV-EHUko Pedagogia irakasle eta Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) zuzendari ohia; eta, azkenik, Gidor Bilbao, Filologia Klasikoan doktore, UPV-EHUko Euskara Zerbitzuaren zuzendari ohi eta Euskara eta Eleaniztasunerako errektoreorde izana. IVAPeko euskara zuzendariorde Eneko Oregiren zuzendaritzapean jardun zuten lau adituek.

### Hizkuntza politika

Lehenik eta behin, Patxi Baztarririkari zuzendu zitzaion Eneko Oregi, eta datozen urteetako hizkuntza politika definitzeko eskatu zion. Sailburuordeak gogorarazi zigun gizartea errotik ari dela aldatzen, eta, harekin batera, baita euskararen beharrak ere. «Euskarak inoiz izan ez dituen arazo eta erronkak sortzen dizkigu gaur egun, eta egoera berri honetan, etorkizuna garbi ez ikusteak kezka sortzen digu. Eta, hala eta guztiz ere, eta guk garbi ikusi nahi badugu ere, ez dugu lortuko etorkizuna garbi ikustea, errealitate berri baten atarian gaudelako, hain zuzen; eta, horrek bide berriak egin beharrean gaudela esan nahi duelako. Ezjakite horrek ezinegona sortzen digu, eta noragabe hori antsietate eta biktimismo bihurtu gabe, modu positiboan kudeatzen asmatu behar dugu». Baztarrrika, dena den, argi bila abiatu zen ilunpe horretan, eta iraganean aurkitu zuen etorkizuneari jauzi egiteko bidea: «Iraganak erakusten digu interbentzioa hil ala bizikoa dela. Horra Euskal Autonomia Erkidegoko egoera, horra Na-

**«Ez dugu lortuko etorkizuna garbi ikustea, errealitate berri baten atarian gaudelako eta, horrek bide berriak egin beharrean gaudela esan nahi duelako»**

**(Patxi Baztarrrika)**

farroakoa, horra Iparraldekoa ere. Hori esanik ere, hau da, interbentzioa hil ala bizikoa den arren, interbentzio horrek ere mugak ditu hizkuntza biziberritzeko prozesuan aurrera egiteari dagokionean. Interbentziorik gabe ezin da, baina interbentzioarekin bakarrik, gizartea ez da aldatuko», esan zuen, aldaketaren gako bila bidean aurrera baino lehen. «Hizkuntz aldaketa, pertsonaren hizkuntz aldaketa da, pertsona bera aldatzea esan nahi du. Hizkuntzei buruz ari garenean ez gara ari komunikazio kode bati buruz, pertsonen buruz eta pertsonen arteko harremanen buruz baizik. Hortik dator lan honen konplexutasuna. Konplexutasunak, askotan, gauzak modu ilun, lausoan ikustea beste biderik ez du uzten. Hala ere, horrek ez gaitu etsipenera eraman behar: euskararen historia azken urteotan, izan ere, hazkunde baten historia izan da. Hazkunde ahalmena dugu, beraz, eta etorkizuneari ere hazkundeari bidetik jo behar dugu, bide berriak asmatu beharko baditugu ere».

### Iraunkortasuna, erabilera

Azkenik, Eneko Oregi gidariaren galdera xehearen erantzunari lotu zitzaion Baztarrrika, hark hitz bat, ideia bat, gako bat eskatu baitzion lehenengo galderan. «Bi hitz erabili beharko banitu, “hazkunde iraunkorra” esango nuke nik. Hitz bat bakarria erabiltzekotan, berriz, “iraunkortasuna” erabiliko nuke. Eta hil ala bizikoa kontu bezala, berriz, “erabilera”». Eta, jarraian, erabileraren giltzaz jardun zuen: «Erabileran aurrera egiteko, nahitaezkoa dugu elebitasun indibidual eta sozial desorekatuari hesia jartzea. Euskarari bera nagusi den esparruak ahalbidetzea; bai esparru geografikoak, eta bai funtzionalak ere. Denon hizkuntza izatera iritsi behar du euskarak, kontziente izanik hori asimetrikoa izango dela. Arazoa da, eta ez nolana hiko, oraingo asimetria hau perfektua dela, eta nik, simetria perfektua amets ez izanda ere, simetria inperfektua nahiko nukeela; alegia, desoreka murrizten joatea eta euskara ohikotasunez erabili ahal izatea». Hori ez da besterik gabe lortuko, ordea. Badira lehenetsiak: «Garrantzitsua da, esate baterako, euskaldunak aktibatzea, euskara ohikotasunez eta eguneroko eginkizunetan erabiltzea».

### Irakaskuntza

Berriro ere, gidaritza hartu eta galdera zuzendu zion moderatzaileak Lore Erriondori, unibertsitateko irakasle denez: «Agerian dago euskarak irakaskuntzan egin duen aurrerabidea, haurtzaindegitik hasi eta unibertsitatearaino. Nire galdera da euskarazko irakaskuntzak hedatzen segituko ote duen, eta zein diren hedatzen segi dezan eman beharreko aurrerapausoak». Erriondok gogorarazi zigun, IVAPek bezala, hezkuntza sisteman indarrean diren hizkuntza ereduek ere 30. urteurrena betetzen dutela. Asko egin dela esan zuen Erriondok, asko egin dugula, baina prozesuak ez duela aurrera egin. «Beharrezkoa dugu egiten



duguna sendotzea, azpimarratzea, blindatzea, elikagai berriak sortzeko, eta ez, aldiz, atzera jotzeko. Lehen Hezkuntzan egiten den inbertsio handi hori Bigarren Hezkuntzan atzera egiten hasten da, eta Unibertsitatean, berriz, batzuetan aurrera, besteetan atzera. Progresiorik ez dago, askotan. Horretan, Administrazioak badu zer egina». Hala ere, hitz bat erabili zuen, hitz bat bitan: «Parte hartzea. Gizartea aktibatzea». Hitz egiteaz ari zen orduan, hitz egin beharraz, erabileraz. «Ohikoa zaigu Haur eta Lehen Hezkuntzetan, ez hain ohikoa, berriz, gainerakoetan: ikasleek ez dute hitz egiten ikasten. Hitz egiten ikastea ez baita hizkuntza ikastea. Hitz egiten ikastea da komunikazioan trebatzea: pentsamendua eta ideiak hitzen bidez transmititzea». Bide berean, sentimenduak eta bizipenak ere aipatu zituen, espres. Esan zuenez, salbuespenak salbuespen, ez da hitz egiten, ez da hitz egiten erakusten ere. Landu beharreko alorretan dira, Erriondoren iritziko, irakasleen prestakuntza, ikastetxearen egitura eta antolara, eta beste... «Ikasleek hitz egiten ez dakitela esan izan dugu, ez dakitela aurkezpenak egiten, eta, askotan, irakatsi ere ez diegu egiten». Horretan, etorkinak integratzeko egitasmoak aipatu zituen, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak integratzeko egiten diren lanak: «Estrategia horiek guztiek komunikazioa dute helburu. Eta komunikatzea, azken finean, hitz egitea da, eta gure eskoletan gehien entzuten den hitza, aldiz, “ixo!” da. Ikasgelan ez da hitz egin behar, ikasgelan isilik egon behar da! Baina gero, guztiok diogu hizkuntza erabili egin behar dela. Irakasleak erabiltzen du, bai, testuinguru formalean. Testuliburuek ere erabiltzen dute, bai, baina hizkuntza formala betiere. Ikasleek, aldiz, nekez hitz egiten dute».

### Hezkuntza ez-formalaren garrantzia

Lore Erriondok familia transmisioaren aipua egin zuen, «Eskerrak dugun trans-

## ATXIKIMENDUA ETA LIDERGOA

«Jaurlaritzaren bosgarren plangintzak lau esparru izango ditu. Horietako bat, lidergoari dagokio: goi arduradunen lidergoa, erdi mailako zerbitziburuen lidergoa, eta, horrekin batera, guztion inplikazioa. Hor, besteak beste, sindikatuak sartzen dira, eta, azken finean, langile guztiak. Inplikazioari dagokionez, badugu puntu bat administrazio barrura begira oso garrantzitsua, baina gizarte osoari begira ere aurrekoa bezain inportantea: atxikimendua. Gizarte atxikimendua behar dugu, batetik, Administrazioen aurrean euskararen demanda areagotzeko; eta, bestetik, zerbitzu emaileena, arduradun politikoena eta administrazioko langileena, demanda horri behar bezala erantzuteko. Lege estatus egoki baten ondoan, hizkuntza politika proaktibo baten ondoan, eta ondoan ez ezik, aurretik, gizarte atxikimendua da beharrezko. Horren ondoan, beste faktore bat, klabea: adostasun sozio-politikoak. Kontsentsu horrekin bakarrik ez dugu hizkuntza politika eraginkorra egingo, baina adostasun sozio-politikorik gabe, guztiz ezinezkoa da hizkuntza biziberritzeko prozesua azkartzea, sendotzea, eta modu iraunkorrean aurrera egitea».

PATXI BAZTARRIKA

misio hori, baina familia eredia bera ere aldatzen ari da, eta, horrekin batera, familiaren barneko interakzio modua». Gaur egun, izan ere, modu askotara jasotzen eta ekoizten dugu hizkuntza. Horra beti Internet, eta horra beti sare sozialak. «Sare horietan libre da gaztea, eta libre da pertsona, nahi duen hizkuntzan jarduteko. Baina hor ere presente behar du euskarak. Bai, sasoi batean, hezkuntza mundua zen inportanteena. Gaur egun, hezkuntzaren esparrua hizkuntza formalarena da, besterik gabe. Eskolan asko egin dugu, ondo egin dugu asko, baina asko dugu egiteko oraindik, badugu zer

hobetu, eta, inoiz, ezin ahaztuko dugu hezkuntza ez-formala, hau da, familia, ekintza osagarriak, aisialdia eta mundu ez-formal horri lotutako gainerako esparru guztiak».

Aukera izan zuelarik, Patxi Baztarrrikak hartu zuen hitza, Lore Erriondok esanetan sakondu nahirik. Hezkuntzan dagoen hobekuntza margen handia azpimarratu, eta hobekuntza tarte horiek betetzen ahaleginak eta bi egin behar ditugula esan zuen. Eta saioaren hasierako amets handi, amets txikiei heldu zien berriz. «Hezkuntzarena da gertatu zaiguna

### «Komunikatzea hitz egitea da, eta gure eskoletan gehien entzuten den hitza, aldiz, “ixo!” da»

(Lore Erriondo)

primeran erakusten duen adibidea. Hizkuntza politikan ez dugu, bakarrik, zer nahi dugun formulatu behar, baita zer ahal dugun ere. Ahal hori, amets txikiak ditugu. Nahia, amets handia. Hezkuntzak, edo irakaskuntzak, nahiago bada, primeran erakusten du zein garrantzizko den hizkuntza politika, zein garrantzizko interbentzioa. Hezkuntza izan da euskarak egin duen hazkundearen oinarri nagusia. Interbentzio hori gabe, hizkuntza politika hori gabe, euskarak nekez irabaziko zuen irabazi duen tarte euskal gizartean; gure Autonomia Erkidegoan, zehatz esanda». Hezkuntzan jarritako indar handien hutsak nabarmendu zituen geroago. «Uste genuen ikasitako euskara erabilera bihurtuko zela automatikoki. Eskolan jarri genituen gure indar kasik guztiak, uste izanik etxetik euskaldun izan, edo ez izan, inguru soziolinguistiko euskalduna izan, edo ez izan... eskolatik molde bereko euskal hiztunak irtengo zirela. Errealitatea, berriz, ari zaigu erakusten interbentzioak zer nolako mugak dituen, baita hizkuntza politikan aurrera egiteko ere! Euskarazko irakaskuntzak berak ere, edozein tokitan, ez du, berez eta nahitaez, euskararen erabilera ohikoa, naturala, normala, inolako gainkargarik eta gainezfortzurik gabekoa ahalbidetzen. Badira beste faktore asko ere».

## AGONIATIK HEDONISMORA

«Erreferenteak behar ditugu, erreferente egokiak, gure erabaki asko sinplifikatuko dituztenak. Hor lan handia egin behar dugu. Familiaren eremuan, dudarik ez, eta, oro har, sozializazio geruza guztietan. Familiartekoa dugu sozializazio geruza bat gero eta nuklearragoa izango dena, eta argi-fokua jarriko nioke. Gazteek oso agoniko ikusten gaituzte, asko sufritzen dugula ikusten dute. Belaunaldi agoniko eta harro batetik, belaunaldi hedonista batera iragaten ari gara. Kodea aldatu beharra dugu elkar ulertzekotan, uler dezaten zergatik naizen zoriontsu nire agoniatik ere, eta beraiek ere, beren hedonismotik, zer egin dezaketen. Hor hitz egiteko bestelako modu bat aurkitu behar dugu. ‘Sufritu egiten duzu!’ esaten didate, ‘Euskaraz egiten ez dugulako, gaizki egiten dugulako... dena da arazo! Niretzat ez!’. Nik uste haiengana joan naitekeela nire belaunaldiko konpromiso eta ametsetatik, baina, aldi berean, beren konpromiso eta ametsak ulertuz. Horixe esateko agindu zidaten atzo etxean».

PILAR KALTZADA

### Belaunaldi berriak

Pilar Kaltzadari zuzendu zion hurrengo galdera Eneko Oregik. «Belaunaldi berriak bere paradigma eraikitzen ari ote dira? Gazteek bere bidea egingo dute euskarari dagokion arloan ere?». Kaltzadak ez zuen zalantzarik izan, gazteek bere bidea egiten ari direla erantzun zion, nahiz eta, esan zuenez, ikuskizun dagoen euskarak zein leku izango ote duen gazteen paradigma horretan; toki zentrala hartuko duen, ez duen. «Gazte belaunaldi guztiak egiten dute beren paradigma, eta oraingoak ere ari dira. [Thomas] Jeffersonek zioena, ezta? Belaunaldi guztiak dute betebeharrak eta eskubide bat: aurreko belaunaldiaren ametsak, konpromisoak, ilusioak... birformulaztea. Batzuetan, ontzat hartzeko, beste batzuetan, baztertzeko. Beren betebeharrak da, eta eskubidea». Eta, jarraian, bere egin zituen Aingeru Epaltzak ikusentzunezkoan esanak: «Guk esaten dugu zer egin behar duten gazteek, eta, hitza ematen diegunean ere, zailtasunak ditugu haiek esaten dutena ulertzeko».

Gogoetaren harian, teknologia berriei heldu eta «etorkizunaren antropologia» eginez jo zuen aurrera. «Noiz gertatzen da iraultza? Komunikazio moldeak goitik behera aldatzen direnean, edo produkzio moduak aldatzen direnean. Hala gertatu zen gizakia nomada izatetik sedentario izatera iragan zenean, adibidez. Iraultza gertatu ohi da, era berean, ezagutzara hurbiltzeko modua aldatzen denean. Teknologia berriek bi bideak aldarazi dituzte, bai ezagutzara hurbiltzeko era, eta bai produkzio sistema bera ere. Ez dut uste Historian zehar askotan gertatu denik. Beraz, iraultza “perfektua” bizi dugu. Testuinguru horretan bizi gara, horretan da etorkizuna. Horri begira jarri behar dugu, hortik tiraka asmatuko genuke zer espero dezaketen gazteek, zer behar duten... Zer esan du, bada, dokumentalean entzun dugun gazteetako batek: “Belaunaldi digitala gara,

«Gazte  
belaunaldi  
guztiek egiten  
dute bere  
paradigma,  
eta oraingoak  
ere ari dira»

(Pilar Kaltzada)

erakargarri egin behar diguzue euskara», esan digu. Egin dezagun erakargarri! Kontua ez da, bakarrik, sare sozialetan eduki mordoia izatea. Ez da, bakarrik, kantitate kontua, inguru horretan euskara *nor* izatea baizik, euskaldunak hor bere lekua izan dezan. Bai, gazteak bere paradigma egiten ari dira. Guri, berriz, haien ondoan egotea eta laguntza eskatzen digutenean, ematea dagokigu».

**Unibertsitatea**

Azkenik, txandan-txandan, laugarren gonbidatuari, Gidor Bilbaori, egin zion galdera Eneko Oregik, unibertsitatea ere administrazio den aldetik, euskarak egingako bide eta aitzin-gibelak azal zitzaizkan. Errektoreorde izan zen garaian metatutako eskarmentutik abiatu zen Bilbao erantzunean, euskarak bizkarrezurra izan behar duela esanez, edo zeharlerroa. «Ez dugu lortuko orain arte egin duguna iraunkor izatea, euskara halako hizkuntz zerbitzuaren, edo euskaldunon problema izanik. Zeharlerroa izan behar du euskarak, hizkuntz zerbitzuaren gaia eta gainerako guztiena. Denon».

Bigarren, zerbitzuaren kalitateari lotu zitzaion bere oharretan Gidor Bilbao. «Saiatu nintzen, kalitate prozesuetan ari ginenean, administrazioan ari diren langile guztiek euskarari dagokion adie-



«Zeharlerroa  
izan behar  
du euskarak,  
hizkuntz  
zerbitzuaren gaia  
eta gainerako  
guztiena»

(Gidor Bilbao)

razlea ere kontuan har zezaten. Izan ere, horrek zerikusia du zerbitzuaren kalitatearekin. Administrazioako langileak zerbitzari dira, eta zerbitzua ondo edo txarto emango du, zerbitzua eskatzen duenaren hizkuntzan erantzuteko gai bada... Saiatu nintzela esan dut, ez dugulako lortu administrazioako langile guztiek hori onartzea».

Hirugarrenik, itzultzearen eta sortzearen arteko orekaz berba egin zuen. Administrazioan asko itzuli behar izan da, itzulpena bultzatu da... «Horrek ekarri du bestela lortuko ez genukeen kalitatea, ziurrenera. Orain, berriz, ikusi egin behar da noraino gauden prest itzulpenari zati bat kendu eta sortzeari emateko. Horrek, azken finean, euskarazko dokumentuak gehiago ibiltzea ekarriko du, nahiz eta testuen kalitatearen kaltetan izan, nire ustez».

Lau partaideek beren ohar nagusiak azaldu eta gero, galdera xeheagoetan barna abiatu zen mahai-inguru gidaria, eta beste zenbait gai eta arlo landu zituzten hizlariek. Patxi Baztarrikak, esaterako, Euskara Herri Administrazioetan Normaltzeko V. Plangintzaldia 2013-2017 izan zuen hizpide, eta lidergoaz, gizarte atxikimenduz eta kontsentsu politikoaz mintzatu zen. Esparru pribatuan are gehiago saiatu beharra azpimarratu zuen Pilar Kaltzadak. Eta Lore Erriondo esparru formaletan ez ezik ez-formaletan ere arreta jarri beharraz aritu zen. Entzuleek egindako galderen bidez amaitu zen ekitaldia. ■

# Elikagai funtzionalak: erabilera egokiaren garrantzia

IDOIA LARRETXI ETA ITZIAR ESEBERRI  
NUTRIZIONISTAK

### Elikagai funtzionalen sorrera

Dietak gure beharrian nutritiboak asetzeko funtzioa du, eta, orekatua izanik, osasun-egoera hobezina bermatzen du, hainbat gaixotasun garatzeko aukerak murriztuz. Azken urteotan, dieta eta osasunaren arteko erlazioak interesa piztu du osasun publikoko arloan lan egiten duten profesionalen zein kontsumitzaileen artean.

Adituek dieta orekatu eta osasuntsua jarraitzea gomendatzen badute ere, herrialde garatuetan elikadura ohitura osasuntsuak galtzen ari dira. Horren zergatia, bizitza-erritmo azkarra, kozinatzeo denbora urria, eta merkatuko produktuen eskaintza zabala dira. Sukaldaritza tradizionala alde batera utzi da, eta geroz eta gehiago kontsumitzen dira aurrez prestatutako elikagaiak; gantz, kolesterol eta gatz kopuruak direla eta, ikuspuntu nutrizionaletik hain osasuntsuak ez direnak, alegia.

Gizarte aldaketa horiei beste bat gehitu behar zaie: bizi-itxaropena luzatzea. Adineko biztanleria izugarri hazi da, eta, harekin bizi-kalitate ona ahalik eta denbora gehien izateko gogoia. Horri, osasun-zerbitzuen gastuaren igoera gehitzen badiogu, uler dezakegu gobernuak, ikertzaileek, osasun arloko profesionalak eta elikagaien industriak biztanleriaren osasun egoera hobetuko duten elikagaien garapenean duten interesa.

Elikagai berri horien guztien artean, elikagai funtzionalak daude. Kontzeptu

hori Japonian sortu zen 80. hamarkadaren hasieran, baina Europako herrialdeak urte batzuk beranduago hasi ziren elikagai hauekiko interesa erakusten. Egun, Europar Batasunean ez dago bateratutako definizioarik, baina onartuenetarikoa batek, FUFOSek (Functional Food Science in Europe) zehaztutakoak, horrela definitzen ditu: «Ohiko elikadurarekin batera hartzen den elikagaia da; pilula, kapsula edo dieta-gehiagarria ez dena, eta efektu nutrizionalez gain, organismoaren funtzioaren baten edo gehiagoren gainean efektu onuragarria duen elikagaia, bai osasun-egoera hobetzeko, bai gaixotasunak pairatzeko arriskua murrizteko ere».

### Sailkapena

**Elikagai aberastuak.** Eragin osasungarria duen osagai bat edo gehiago gehitu zaio elikagaiari: bitaminak, mineralak, gantz azidoak... Hiru aberaste mota ezberdin ditzakegu:

- Galdutako osagaiak gehitzea. Ekoizte prozesuan galdutako osagaiak berriaz gehitzen zaizkio elikagaiari: esne gaingabetuari bitamina liposolugarriak, esaterako.
- Osagai bat indartzea. Era naturalean duen osagai bat efektu onuragarriak izateko behar duen kantitatea gehitzen zaio elikagaiari: esnari kaltzioa, adibidez.
- Estandarizazioa. Populazioak zenbait osagai falta dituenean, kontsumitzeko gehitzen dira: iododun

gatzak edo B12 bitaminarekin aberasturiko landare-jatorriko hanburgesak, bitamina hori, soilik, animalia jatorriko elikagaietan baitago.

**Funtzio zehatz bat duten elikagaiak.** Helburu zehatz bat lortzeko ekoiztu diren elikagaiak dira: laktosarik gabeko esnekiak, hipertentsioaren aurkako elikagaiak edo kolesterolaren maila murrizteko elikagaiak.

**Probiotikoak.** Mikroorganismo bizidunak dituzten elikagaiak dira, eta kantitate egokietan hartuz gero, hartzailaganako efektu osasungarriak eragiten dituzte: esne hartziak eta jogurtak, esaterako.

**Prebiotikoak.** Koloneko mikroorganismoen hazkuntza eta aktibitatea bermatzen dituzten, eta, ondorioz, osasunarentzako onuragarriak diren osagai liserigaitzak dira: zereal integralen frukto-oligosakaridoak eta zuntza.

Esan bezala, azken urteotako bizimodu-aldaketek elikadura desorekatua hedatzea ekarri dute, eta, horregatik, elikagai funtzionalak edozein pertsonaren dieta osatu dezakete. Hala ere, zenbait pertsonarentzat bereziki egokiak izan daitezke; oro har, beharrian nutritibo bereziak dituztenentzat (haurrak, agureak, haurdunaldi edo edoskitzaroan dauden emakumeak), gaixotasun ezberdinen arrisku faktoreak kontrolatu behar dituztenentzat (hipertentsioa, kolesterol maila altua), zenbait elikagairekiko intolerantzia dutenentzat (laktosa gabeko esnekiak), etab.

Elikagai funtzionalek gure osasunari mesede egin badiezaioke ere, kontuan izatekoa da dieta osasuntsu eta orekatu batekin batera hartu behar direla, akats handiena dieta orekatua alde batera uztea izaten baita. Askotan, kontsumitzaileek pentsatzen dute elikagai horiekin gaixotasun guztiak desagertuko direla; hots, arazoaren «konponbide» azkarra eta erreza izango direla. Horregatik, ez dugu ahaztu behar elikagai funtzionalak ez direla sendagaiak, eta ez dela norberaren osasuna beraien menpe utzi behar. Hori dela eta, produktu horien gaineko kontrola guztiz beharrezkoa da.

## Elikagai funtzionalen inguruko legeria

Europar Batasunak ez dago elikagai funtzionalen buruzko lege zehatzik; hau da, egun, legeriak ez du definitzen elikagai funtzionala zer den. Orduan, nola kontrola ditzakegu elikagai horiek? Etiketen gaineko legeriaren bitartez, hain zuzen. 2006. urteko abenduan, Europako Parlamentuak elikagaien eta osasun-ezaugarrien inguruko aipamenei buruzko 1924/2006 (EB) araudia onartu eta Elikagai Seguratasuneko Europar Agentzia (EFSA) sortu zuen. Horrela, EFSAk elikagai horien inguruan zegoen lege-zirrikuitua bete zuen. Araudi horri dagokionez, hiru adierazpen mota bereiz daitezke:

- **Adierazpen nutrizionala.** Konposizio nutrizionalaren edo balio energetikoaren aldetik, elikagai batek nutrizio ezaugarri onuragarriak dituela baieztatu, iradoki edo ulertzera ematen du.
- **Ezaugarri osasuntsuen adierazpenak.** Elikagai, elikagai-talde edo bere osagaien batek osasunarekiko duen erlazioa baieztatu, iradoki edo ulertzera ematen du.
- **Gaixotasunarekiko arrisku murriztapen adierazpenak.** Elikagai, elikagai-talde edo bere osagaien bat kontsumitzeak gaixotasun baten edo bere arrisku faktorearen ager-

pena nabarmen txikiagotzen duela baieztatu, iradoki edo ulertzera ematen du.

Adierazpenei dagokienez, badira guztietarako komunak diren oinarri batzuk:

- Ez da izango faltsua, zalantzazkoa edo iruzurtia.
- Ez du sorraraziko beste elikagai batzuen segurtasunari edo nutrizio egokitasunari buruzko zalantzarik.
- Ez du bultzatuko elikagaiaren gehiegizko kontsumoa.
- Ezingo du baieztatu, iradoki edo ulertzera eman dieta orekatuak nutriende kopuru desegokia eskaintzen duenik.
- Ezingo die gorputz funtzioen aldatetei erreferentziarik egin, kontsumitzaileak beldurtu ez daitezten.

Baina, mota guztietako elikagaietan agertu daitezke adierazpenok? Ez, baieztapen hauek erabili ahal izateko, EFSAk honako baldintza hauek betetzera behartzen du:

- Adierazitako sustantziaren edukiak, gabeziak ala murrizketak osasunean eragin onuragarria duela ziurtatu behar du.
- Adierazpenean agertzen den sustantzia kopuru nabarmenean dagoenean, edota kontrako kasuan, kopurua murriztu denean, eragin onuragarriak dituen.
- Adierazpenean agertzen den sustantzia gure gorputzerako bioerabilgarria izatea.
- Kontsumitzaileak adierazpena ulertzera behar du.
- Adierazpenak erreferentzia egin behar dio kontsumitzeko prest dagoen elikagaiari.

Kasu batzuetan, alabaina, ezin izango da adierazpenik egin araudiak debekatzen duelako. Orduan bete beharreko baldintzak hauek dira:

- % 1,2 baino alkohol graduazio handiagoa duten edarrietan debekatuta

dago ezaugarri osasuntsuei buruzko adierazpenak egitea.

- Ezin da pisua galtzeko erritmoari edo garrantziari buruzko aipamenei egin.
- Ezin da adierazi elikagai hori ez kontsumitzeak osasunean eragingo duenik.
- Medikuen gomendioaren alde edo kontra egitea debekaturik dago.
- Elikagai edo elikagai talde batek propietate osasungarriak dituela adierazteko, beharrezkoa izango da elikagai horien informazio nutrizionala ematea.

Elikagai funtzionalen erabilera estrategia baliotsua izan badaiteke ere, zuhertasun handiarekin hartu beharreko gaia da, eta haien inguruko legeriaren kontrola guztiz beharrezkoa da. Bete beharreko baldintzak asko direla kontutan izanik, ez da erraza adierazpen nutrizionalak dituzten elikagaiak merkaturatzea. Izan ere, 2006ko araudia ezarri zenetik, EFSAk jasotako adierazpen guztietatik soilik % 10 onartu ditu. ■

## ERREFERENTZIAK

Siró, I.; Kápolna, E.; Kápolna, B.; Lugasi, A.: «Functional food. Product development, marketing and consumer acceptance-A review», 2008. *Appetite* 51, 456-467.

*Alimentos funcionales para una alimentación más saludable*. Sociedad Española de Nutrición Comunitaria (SENC), 2005.

Europar Batasunaren web-orri ofiziala: <http://ec.europa.eu/nuhclaims/>

ELIKA. Nekazaritzako Elikagaien Seguratasunerako Euskal Fundazioa: <http://www.elika.net/consumidor/eu/default.asp>

# Kontziliazioa edo lan-produktibitatea helburu?

Espainiako Kongresuak ordua atzeratzeko proposamenak kontziliazioa ez beste zenbait arazo ekarri ditu azalera

JON ARIZKUN  
KAZETARIA

**E**spainiako herritik dator notizia... Joan den urriaren 26an, Espainiako Kongresuko Berdintasun Batzordeak kontziliazioari eta ordutegien arrazionalizazioari buruzko txostena onartu zuen. Hainbat neurri eta

proposamen ageri ditu erran delako txostenak, baina, guztietan deigarriena, erlojua ordubete atzeratzea.

Berdintasun Batzordeak jaso dituen proposamenen artean dago, era berean, aitatasun baimenaren iraupena luzatzea.



Txostenak jasotzen duenez, lanaldi luze eta nekeak egiten dira espainiar estatuan; egindako lanorduen eraginkortasuna, berriz, txikia da; bazkari-afariak berandu egiten ditugu –Europar ohi dena baino beranduago, behinik behin–, denbora gutxiago dugu bizitza pertsonalari eskaintzeko, atsedena ere eskas, eta familia bizitza, edo kontziliazioa, behar bezala garatzeko eragozpen handiak... Batzordearen txostenaren arabera, espainiar estatuak darabilen ordutegi irrazionalaren ondorio dira gaitz guztiok, eta 1942an Francoren erregimen faxistak hartutako erabakia du jatorri. Ordukoan, Espainiak Europako Mendebaldeko ordu zona utzi –berez zegokiona, Portugalari eta Erresuma Batuari bezala, adibidez–, eta Europa Erdialdekoa hartu zuen. Hortik dator oraingo txostenaren proposamen deigarria, hau da, erlojua 60 minutu atzeratzea. Horren helburua da, berriz, espainiar estatuak ondoko herrialdeek duten ordutegi bera izatea; garai batean izan zen moduan, alegia.

#### Arrazionalizaziotik irrazionalkeriara

1884an, egun unibertetsala neurtzeko nazioarteko biltzarra egin zen Washingtonen (AEB). Eguerdia ofiziala eguzkiaren eguerdiarekin bateratzen saiatu ziren, eginahalean. Horretarako, eguzkia hegoaldeko hodeiertzaren gaineko punturik gorena iristen duen momentua hartu zuten erreferentzia. Handik goiti, Greenwichko meridianoa izango zen mundu osoko ordu zonak erabakitzeke neurria. Espainiar estatuari Europa Mendebaldeko zegokion, Portugalari, Frantziari eta Erresuma Batuari bezala, esaterako. Horrek, ordu baten aldea esan nahi zuen Europa Erdialdeko herrietako erlojuarekiko. Ordea, egoera hori aldatu egin zen 1942an.

Izan ere, duela 73 urte sortu zen gorabehera. Bigarren Mundu Gerrak orduaren aldaketa ekarri zuen, oraindik ere irauten duena. Arestian esan dugunez, naziek Frantzia hartu zutelarik, frantziarrek Ale-

## ASKOTARIKO GORABEHERAK ETA *PRIME TIMEA*

Kontziliazioa omen zuen helburu, baina Espainiako Kongresuaren Berdintasun Batzordearen txostenak kontziliazioari eta erantzunkidetasunari bezainbat, edo gehiago, opa dio ekoizpenari, esan nahi baita, langilearen produktibitate eta eraginkortasunari. Jakinaenez, espainiar estatuan, emakumeak gizonak baino askoz ordu gehiago ematen dizkie zaintzari eta etxeko lanari. Gizonak, berriz, ordaindutako lanari eskaintzen dizkio ordu gehiago.

Lanaldi trinkoa ezarri eta zabaltzeko proposamenak, bestalde, ohituraren kontra egingo du talka, Euskal Herrian –Europako hainbat herrialdetan ez bezala– zeharo errotuta dagoelako bazkarian bi eta hiru plater jatea. Hori aldatzea ere ez da erraza izango, inondik ere.

Arestian aipatu dugun txostenean ageri diren proposamenetan da telebistako *prime timea* aurreratzea. Estatuan, dakigunez, gauerdia irauten dute saio nagusiek. Diotenez, espainiar estatuan Europar baino 50 minutu gutxiago egiten dugu lo, eta horrek produktibitatean eragiten duela ez dago dudarik. Produktibitateaz mintzo gara berriz ere, kontziliazioa ahantzirik...

Itxuraenez, bestela berrantolatu beharko genuke gizartea –adituek diotenez, bederen–, eta ordu bat aurrerago edo atzerago ibiltzeak, besterik gabe, nekez lagunduko du horretan.

maniaren ordu zona hartu behar izan zuten. Halaber, Frantziaren bidetik jo zuen Espainiak, Francok Hitlerrekiko adiskidetasun keinu eginez. Londresek eta Lisboak ere bat egin zuten Alemaniaren orduarekin, gerra arrazoiak gorabehera, nahiz eta gerra amaiturik bi herrialdeok lehengora itzuli ziren. Euskal Herriari dagokionez, Espainiaren eta Frantziaren mugen baitan den ber, Europa erdialdeko ordua baliatu izan da ordudunik gurean, herrialde mugakideetan ez bezala. Zenbait adituren iritziz, gure ordu ofiziala ez datorrenez bat eguzki orduarekin, gure organismoaren ohiturak ere aldatu egin ditugu. «Amaie-

rarik ez duen jet lag batean» bizi garela ere esan izan dute aditueterik batzuek.

#### Kontziliazioa

Kontziliazioari eta ordutegiaren arrazionalizazioari buruzko txostenaren ondorio litzateke, beraz, erlojua ordubete atzeratzeko proposamena. Zerutik jakina da, ordea, Berdintasun Batzordearen emaitza dela txostena, eta ordua atzeratzea ez dela helburu, ondorio baizik. Kontziliazioa du xede batzorde horrek, eta proposatuak dituen neurrien artean da, besteak beste, oraingo lanaldi luze eta zatituaren orde, lanaldi trinkoa ezartzea. Bizitza

## EGUZKI ORDUA

Euskal Herriko erlojuak eguzki ordua baino ordubete aurrerago dabilta neguan, eta udan, aldiz, hiru ordu lehenago –udako ordutegiaren aldaketaren eraginez–. Kontziliazioari eta ordutegien arrazionalizazioari buruzko txostena onartu ondoren plazaratu ziren iritzi, ohar eta interpretazioen arabera, ordutegi nahas-mahas horregatik bazkaltzen da Hego Euskal Herrian –eta espainiar estatuan, oro har–, European baino beranduago. Erloju ofizialaren arabera, 14.00etan bazkaltzen ohi dugu, eta 21.00etan afaltzen. Aldiz, erloju biologikoaren arabera, 13.00etan genuke bazkari ordua, eta 20.00etan afaria. Adituen iritziko, horrek esan nahi du, biologikoki, Europako gainerako herrialdeekin batera egiten ditugula bi otordu nagusiok. Ordea, erloju ofizialak agintzen duenez gure bizitza erritmoan, iluntzeko bederatzietan afaltzeak goizeko hamarretan lanean hastea ekarri beharko luke.

pribatua eta lana modu orekatuan uzartu ahal izatea da asmoa. Bide horretan, bestalde, Batzordeak Kontziliazio eta Erantzunkidetasun lege berri bat sortzeko gomendioa ere egin dio espainiar gobernuari –aitatasun eta amatasun baimenak aldatzearekin batera–, baina, hori bai, «ekonomi egoerak horretarako bidea ematen duenean». Gurasoen baimen horiei dagokien, txostenak aitatasun

baimena lau astera luzatzea proposatzen du, eta gurasoen baimenak berdinak eta transferiezinak izatea. Horrek, inondik ere, gurasoen aitatasun edo amatasun baimenaren luzapena ekarriko du, 16 astekoa izatetik 32 astekoa izateraino.

Kritikoez laster esan dute ordua aldatzeko neurria guztiz deigarria izango litzatekeela, baina, kontziliazioari dagokionez, «ez duela ezer aldaraziko», espainiar gobernuak murrizketak bata bestearen ondotik erabakitzen ari baita. Ahots kritikoen aburuz, Espainiako Gobernuak hezkuntzan, osasun arloan, mendekotasunean, gizarte zerbitzuetan... ezarri dituen murrizketak kontziliazioa eta erantzunkidetasuna ezinezko egiten ari dira. Kontziliazioa ahotan hartu bai, baina gobernuak horretarako asmo zindorik ez duela esan dute. Ordua aldatzea logikoa izanagatik ere –ordu zona eguzkiaren ordura egokitzeak pertsonen biorritmoei lagunduko diela ukatuko duenik ez dago–, diote neurri horrek ez duela, berez, kontziliazio hobea ekarriko.

### Ekoizpena

Kontziliazioa ezbaian, lanaldiak eta lanaren eraginkortasunak hartu dute benetako protagonismoa hedabideetan. Alegia, askoz gehiago hitz egin da lanaz, familia barruko bizimodua kontziliaztzeaz baino. Datuak, izan ere, deigarriak ere badira: Espainiako langileek ordu gehiegi ematen dituztela lanean esan da, eta ekoizpena, aldiz, txikia dutela.

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakunde OCDEk jakinarazi duenez, Espainian langileek 1.653 ordu lan egin zuten 2009an. Alemanian, berriz, 1.389 ordu, % 19 gutxiago. Bestalde, 2011n, Munduko Foro Ekonomikoaren datuen arabera, 142 estaturen ekoizpen rankinga osaturik, Espainia 36. postuan izan zen. Ranking horretan seigarren izan zen Alemania eta hogeita batgarren, aldiz, Espainiaren mugakide Frantzia. Datuon argitan, bistan da lanordu kopurua han-

diagoa izateak ez dakarrela, berez, ekoizpen hobea, ez handiagoa. Hori kontuan, Espainiako Kongresuko Berdintasun Batzordearen txostenak produktibitatea areagotzea nahi du, lanaldia trinkotuz eta kontziliazioa bideratuz.

Ordua atzeratzeak eta lanaldiak trinkotzeak, esate baterako, izango lukete bestelako onurarik ere. Goizean goizago lanean hasteak, arratsaldean ordubete lehenago lanetik irteeta esan nahiko luke eta, ondorioz, familia eta lana kontziliaztzeko aukera izango litzateke; hein batean, bederen. Alabaina, merkataritza sektorean, adibidez, ez dirudi ordu aldaketak eraginik izango lukeenik, ordutegiak gero baino gero gehiago liberalizatzen ari baitira arlo horretan, eta horrek merkataritza txikiei ez die ezer kontziliaztzeko aukerarik ematen. Sektore hau, bestalde, baitezpadakoa da, Espainian langile autonomoen %90 dendari txikiak baitira, eta horietatik %60 emakumeak, hots, kontziliazioaren alde gehien saiatzen ari direnak.

Esana da lehendik ere: ordua atzeratzearen inguruko eztabaidan lana eta ekoizpena aztertu dira bereziki, eta ezkutuan igarotzeko arriskuan da benetako gaia, zeina baita kontziliazioa. Giro honetan, eta txostena, oraingoz, proposamena baino ez bada ere, zenbait ahots kontziliazioa bermatzeko legeria berria eskatzen hasi dira.

### Lurralde gorabeherak

Espainian ordua atzeratzea proposatzen ari direnean –Greenwich meridianoaren ordu zonara itzultzea, alegia–, Frantziak ez du horretarako beharrik, lurraldearen parterik handiena Europa erdialdeko ordu zonatik hurrago baitago. Dena dela, Madrilgo gobernuak ordua aldatzeko erabakia hartuko balu, Euskal Herriak –lehenez gainera– beste zatiketa bat ere izango luke: bi ordu zonatan banatuta geratuko litzateke. Hendaian 19:00ak direnean, badiaz bestaldeko Hondarribian, adibidez, 18.00ak lirateke. Horrek ekarriko lukeen nahaste-borrastea gorabehera,



kontziliazioa erraztu ez baina zaildu egingo luketela ez dago zalantzarik.

Lits gehiago ere baditu ordu aldaketa babilizko honek, ordea. Francoren erregimen faxistak Hitlerrekiko keinu eginez hartutako erabakia besterik gabe aurkeztu dator Espainiako Berdintasun Batzordearen txostenean, Franco jeneral matxinatuaren izenik ere aipatzeke.

Galiziako Bloke Nazionalista Galeoak, bestalde –eta orain baino lehen ere–, behin baino gehiagotan eskatu izan dio Madrili Galizia Greenwich meridianoren ordu zonara aldatzeko, Portugalen ordutegi bera izateko. Inoiz ez diote kasurik egin.

Kanarietan ere kezka eragin du proposamenak. Batetik, uharteetan logikoa iruditzen zaie erlojua dagokion ordura egokitzea, eta, kasu honetan, atzeratzea. Bestetik, ordea, Kanariar Uharteetan beste ordubete ere atzeratzeko eskatu du Kanarietako ordezkariak politikoa Madrilen, geografia kokapenak halaxe agintzen duelako, eta, gainera, irrati eta telebistetan erabili ohi den leloa «ordubete gutxiago Kanariar Uharteetan» esaldiak doako publizitatea egiten diolako turismotik bizi den erki-degoari. Ordu bat besterik ez atzeratzeak, ezabatu egingo luke, hein handian, uharteek hedabideetan duten presentzia...

Kontziliazioa helburu zuen txostenak, beraz, bestelako bideak harturik, urardotu egin du hasierako asmoa. Kontziliazio ahalegina emakumeek egin dute orain arte, eta egungo sistemarekin, eta Espainiako Kongresuko Berdintasun Batzordeak kontziliazioari eta ordutegien arrazionalizazioari buruzko txosten burutsua gorabehera, emakumeen bizkar egingo da kontziliazioa. Eta ordu aldaketa beste aldaketarik ez bada, familia bizitza eta lana kontziliatu nahi izatekotan, aukera profesionalak galtzen segituko dute emakumeek. Eta, itxura guztien arabera, horrelaxe izango da kontziliazioa guztion kontua dela –emakumeena ez ezik, gizonezkoena– gizartea behin eta betiko jabe dadin arte. ■



# Eutanasia eztabaidagai

NEREA PIKABEA  
KAZETARIA

**H**eriotza-prozesuari buruzko iritzia aldatzen ari da azken urteotan. Gero eta gehiago aldarrikatzen da sufrimendua saihestu eta bizitzaren azken momentua duintasunez egin ahal izateko pertsonak duen eskubidea. Eutanasia eta suizidio lagunduaren eztabaida pil-pilean dago gizartean, baina medikuak, legelariak eta politikariak ez dira ados jartzen. Erietxeetan, sendabiderik ez duten gaixoei mina kentzeko praktikak gero eta gehiago egiten diren arren, gaur egun indarrean dauden araudiek galarazi egiten dute gaixoei eutanasia eta suizidio lagundua praktikatzea. Legeez gain, heriotzari buruzko ikuspuntuak eta kontzientzia eragozpenak eragina dute heriotza aplikatzeko erabakian. Mediku, aditu eta elkarteen iritzia jaso ditugu artikulu honetan.



IÑAKI OLAIZOLA EIZAGIRRE,  
antropologoa:

**«Pertsona gehienak dira hiltzeko eskubidea bizi kalitatearen gainbehera nabarmen bati lotzearen aldekoak»**

Gizartean heriotzaz eta bizitzaren balioaz eztabaidatu beharra ikusten duzu? 1960ko hamarkada arte, kasik eredu bakarra izan den eredu «tradizionalak» kristautasunaren eragina izan du funtsean: kristau pentsamoldearen hegemonia, eta, horrekin bat, gure bizitza-

ren jabe ez garela sentitzea; baita gaixoa etxean zaindu beharra ere, betiere familia handien testuinguruan eta senitartekoak zaintzaile (kasik beti, emakumeak).

Hiltzeko eredu «biografikoak», alabaina, hiltzearen eta heriotzaren inguruko beste pertzepzio bat du. Hiltzea ez da soilik heriotzarekin lotura duen ekintza bat; gertatzen dena da bizia, bere azken faseetan, prozesu konplexu bat dela, eta gaixotasuna, mendekotasuna, heriotzaren ekintza bera, heriotza ondoko erritual eta abarrak bizitzaren beraren aldi garrantzitsuak dira: alegia, hiltzeko prozesua. Ondorioz, aldi hori bizi izateko, «hiltzen ikasteko» eta hiltzeko hainbat moduren artean aukera egiteko, pertsona batzuek erantzukizun eta pertsonalizazio maila handiagoak hartzen dituzte beren gain, oinarri etiko eta balio berrietara egokituta, eta, betiere, beren profil biografiko edo bizimoduari atxikiago.

Pertsona batek bere burua hiltzeko eskubide izan beharko luke? Zein egoeratan? Nola neurtu dezakegu pertsona batek bere burua hiltzeko erabakia hartzeko duen autonomia maila?

Nire ustez, eztabaida hori interpretatzeko arrazoi nagusietako bat da hiltzeko eskubidea errespetatzea ala ez errespetatzea. Eztabaidaren oinarria horixe dela iruditzen zait. Egun, bi joera nabari dira.

Batak dio egoera jakin baten ondorioz (ia beti fase terminalean) asko sufritzen denean, zilegi dela hiltzeko eskubidea. Literatura espezializatuan eta legedian «duintasunez hiltzeko eskubidea» esaten zaio jada kasu horri. Bigarren joerak, oster, baztertu egiten du gaixotasun terminalaren baldintza, eta, sufrimendu fisikoaz harantzago joanda, pertsonak, berak hala nahi duenean, «hiltzeko eskubidea» izan behar duela defendatzen du.

### **Euskaldunak prestatuta al gaude hiltzeko, edo geure burua hiltzen uzteko?**

Nire ikerlanean ikus daitekeenez, pertsona gehienak dira hiltzeko eskubidea bizi kalitatearen gainbehera nabarmen bati lotzearen aldekoak, eta duintasunez hiltzeko eskubideaz hitz egiten dute. Hala, elkarrizketatu ditudan askok aldeko jarrerara daukate pertsona ororen erabateko autonomiari begira, eta beraien borondatea errespetatzea defendatzen dute, baina, aldi berean, «ez dute ulertzen» hil nahi izate adierazte hutsa –besteentzako ageriko arrazoirik gabekoa– nahikoa izatea laguntza publikoa eskatzen duen eskubide bat emateko.

### **Gaur egun indarrean dagoen Heriotza Duinaren Legea nahikoa dela uste duzu? Zer gehiago jaso beharko luke lege horrek?**

Ez, ez da nahikoa. Nire ustez, Nafarroan indarrean dagoen legea ez da, inolaz ere, lege ona, ez baitu kontuan hartzen sufrimendu psikologikoa sufrimendu fisiko bezain garrantzitsua dela, kasu askotan.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, berriz, ez dugu inongo legerik, eta hori politikoen akats handia dela uste dut. Ez dute herriaren nahia kontuan hartzen.

Iparraldean, berriz, hor dabil estatu frantziarra eutanasiari buruzko lege bat aurkeztu nahian, baina, bitartean, Euskal Herri osoan heriotzaren kalitatea txarra da, eta ez dira pertsonen eskubideak errespetatzen. ●



**KOLDO MARTINEZ,**  
medikua eta Bioética Fundamental y  
Clínica elkarteko presidentea:

## **«Erabakia taldean hartzen da eta beti familiarekin adostuta»**

### **Gaur egun indarrean dagoen legedia nahikoa dela uste duzu?**

Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, araututa daude bizitzaren azken unean ematen diren hainbat egoera. Bizitzaren amaieran lasaigarriak ematea onartuta dago, baina eutanasia eta suizidio lagundua legez kanpo daude. Asko hitz egiten da heriotza duinaren inguruan, baina argitu beharko litzateke zer den heriotza duina. Eutanasiara ailegatu gabe beste hainbat egoera duin daude. Batetik, indarrean dagoen araudia nahikoa dela uste dut, bizitzaren amaieran gerta daitezkeen hainbat egoera arautzen dituelako; baina bestetik, gutxiengo baten ustez, legedi hori motz geratzen da, eta beraz, legedia hobetzeko pauso batzuk eman beharra dago.

### **Legearen inguruko eztabaidaren aurretik, gizartean beste era bateko eztabaida behar dela uste duzu?**

Denok hilko gara egunen batean, baina beldurtu egiten gaitu horrek, ez dugu

horretan pentsatu nahi. Anbiguotasunez jokatzeko heriotzaren aurrean. Gehiago hitz egin beharko genuke ezintasunaz, menpekotasunaz, eta hausnarketak horiek paper batean idatzi beharko genituzke. Bizi testamentuak egiten dira gaur egun, gauza horietan gehiegi pentsatu gabe. Gizartean, gai hauetaz hausnartu beharko genuke elkarrekin.

### **Gure kulturak eragina du erabaki horretan?**

Bai, zalantzarik gabe. Eta euskaldunok badugu onespren isil bat heriotzaren aurrean. Heriotzarekiko gure kultura nahikoa zentratua da, onespren sakon bat duena. Hollandan, esate baterako, eutanasia onartuta dagoen herrialdean, bizitzarekiko kultura desberdina dute, askoz ere individualistagoa. Guk, euskaldunok, komunitatea balaratzen dugu: familia, lagunak, koadrila, etab. Borrokarako gogoia dugu, azken unera arte ez etsitzeko jarrerara. Kultura honi eutsi egin beharko genioke.

### **Noiz erabaki dezake pertsona batek hiltzea? Hiltzeko eskubide horrek badu mugarik? Eta hala bada, non jarri behar dira muga horiek?**

Nik uste dut pertsona batek ezin duela minez hil; errukigabekeria da hori. Osasun zentroetan hainbat irtenbide ematen zaizkio gaixoari, eta protokoloak ezarrita daude: lasaigarriak noiz eman, konortea noiz kendu, etab. Tratamendu horiekin gaixoari estualdia ezin diogunean kendu, orduan gaixoak erabaki dezake heriotza eskatzea. Eutanasia erabaki libre eta kontzientea da. Baina deprimituta dagoen norbait ez da pertsona librea horrelako erabaki bat hartzeko. Pertsona hori erabakia hartzeko gai den erabaki behar dute lehendabizi medikuek. Erabaki hori ez du mediku bakar batek hartzen, noski; asko hitz egiten da taldean eta beti familiarekin adostuta egiten da, erabakiaren ondorioak larriak baitira.

### **Profesionalek izan behar duzue eskubidea pertsona bati hiltzen laguntzeari uko egiteko?**

Medikuon kontzientzia-eragozpenaren alde nago, baina oso egiazkoa izan behar du. Sarritan, kontzientzia-eragozpen horren atzean eragozpen politikoak edo ideologikoak egoten dira, erosotasuna ere bai, eta horiek ezin dira onartu. Dena den, horrelako erabaki bat psikologikoki oso gogorra da. Horregatik hartzen ditugu erabakiak taldean eta aukera guztiak aztertzen ditugu. Erabaki hori hartzen ez badugu, badakigu pazientearen kalterako izango dela, eta hori ere psikologikoki mingarria da. ●



**MARIA ALONSO,**  
medikua eta Profesionales por la Ética elkarte  
kidea:

## «Hiltzeko nahia arreta eskatzeko modu bat izan daiteke»

**Ados zaude indarrean dagoen eutanasiari buruzko legediarekin?**

Europako lege batzuk ez dira bizitza babestearen aldekoak, baina Europako Kontseiluaren 1859/2012 Ebazpenak kasu guztietarako debekatzen du eutanasia. Espainian, bestalde, garrantzi handia du Gaixoaren autonomiari buruzko 41/2002 Legeak; lege horren arabera, ezin da aplikatu ordenamendu

juridikoaren eta *lex artis*<sup>1</sup>aren kontrako aurretiko instrukzioirik.

Artikulu hori indargabetzeaz egon zen aurreko legealdian, bizitzaren amaieran pertsonak dituzten eskubideak arautzeko lege aurreproiektu baten ondorioz. Honako hauek ziren aurreproiektu horren aldarrikapenak: lehena, gaixoaren nahia derrigorrez bete behar da; bigarrena, hori betetzeak erantzukizunetatik salbuetsi egiten du profesionala; eta hirugarrena, indarririk gabe geratzen da aurretiko instrukzioak betetzeko *lex artis*. Hiru eskaera nagusi horiek bidea irekiko liokete eutanasiaren lege bati.

Andaluziako eta Aragoiko heriotza duinari buruzko legeek ika-mika sorrarazi zuten, estalitako eutanasia ahalbidetzeagatik. Hala ere, Nafarroa da pazienteak zein jardun kliniko ona gehien babestu dituen autonomia erkidegoa: lasaigarriak hartzeko eskubidea baztertu zuen (tratamendu batek eraginik ez duenean sortzen diren sintomak arintzeko baka- rrik da beharrezkoa), eta ez ditu jada elikadura eta nutrizioa aipatzen aha- legin terapeutikoa mugatzerakoan (oinarrizko zaintzeak diren aitortza inplizitua).

**Pertsona batek eutanasia aplikatu die- zaion erabakitze eskubidea izan behar duela uste duzu? Zein kasutan eta noiz aplikatu beharko litzateke?**

Eskubide guztiak oinarritzen diren funtsezko ondasuna da bizitza, eta gure ordenamenduak babestu egiten du.

Bizitzaren defentsak bi oinarri ditu: bizitzaren erabilgarritasun ezaren prin- tzipioa, batetik, eta eutanasia aplika- tzen den herrialdeetako Batzorde eba- luatzaileek emandako datuak, bestetik. 2013an, aldaketa sozialak eta derrigortze

<sup>1</sup> Nafarroako Parlamentuak, 2011n onartutako Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion es- kubideei eta bermeei buruzko Foru Legeak jasotzen duenez, «...osasun agintariek, osasun administrazio- ak eta profesional medikoek uneoro zainduko dute gaixo guztiak, beren inguruabarrak gorabehera, beren duintasunaren araberrako gutxieneko zainketak jaso ditzaten, *lex artis* delakoari jarraituz».

ezkutuak zein agerikoak aztertu ondo- ren, Irlandak betoa jarri zion suizidio la- gunduari, une txar batean beste aukera- rik ikusten ez duten ahulenak babesteko asmoa argudiatuta.

Eutanasia norbanakoen kasuetatik harata- go doa eta guztioi eragiten digu. Ezin da arautu eta aldi berean kontrolpean izan: legezkatuz gero, dinamika hedakorra ga- ratzen da, suposizioak zabaldu egiten dira eta onespenik gabe ere egiten da. Eutana- siak medikuntza ordezkatzen du.

Eutanasiak eskuetatik ihes egiten duela erakutsi zuen Holandako Fiskal Nagu- siaren Remmenlink txosten esangu- ratsuak. Ikerketa horretan, medikuen %41ek adierazi zuten gaixoaren baimenik gabe eraman zutela praktikara.

**Zer proposatzen duzu bere bizitzarekin amaitu nahi duela dioen pertsona baten kasurako? Zer egin dezakezue profesio- nal zarentenok?**


Hiltzeko nahia arreta eskatzeko modu bat izan daiteke. Zaintza aringarrien unitateek erantzun fisiko, psikologiko, espiritual eta soziala ematen dute. Lau arlo horiei helduta, gaixoaren beharrak asetzen ditu. Azken batean, gaixoa esan nahian dabilena ez baita ez duela bizi nahi, baizik eta ez duela horrela bizi nahi. Asebetetzeari buruzko inkestek puntua- zio handiagoa jasotzen dute gaixoak eta haien familiak unitate hauekin artatzen badira: horixe da bidea.

Profesionalen beharra da gaixoak baka- rrik ez uztea, eta, hortaz, minetik zein alferrikako tratamenduetatik babestea. Etikoki txalogarria da egoera psikologiko txar horietatik ateratzen laguntzea, eta ez bere buruaz beste egiten laguntzea.

**Herritarrek eta profesionalak ikuspegi bera al duzue eutanasiari buruz?**

Heriotza sufrimendurekin edo euta- nasia; dilema hori besterik ez dagoela, horixe da helarazten den ideia bakarra. Profesionalak esperientzia dute sufrimen- duarekin, eta gehienek badakite aukera

hori ez dela erreal. Aurrerapauso asko eman dira robotikan, bioteknologian eta baliabide analgesikoetan; hor aipatu beharko genuke, bizitzaren amaieran mina saihestu ahal izateko, lasaigarriak dosi egokietan emateko aukera, eta, beraz, heriotza eragiteak ez daukala zentzurik gaur egun. ●



**LUIS MONTES,**  
medikua eta Duintasunez Hiltzeko Eskubidea elkarte federaleko presidentea:

## «Suizidio lagunduaren eta eutanasiaren beste ikuspuntu bat eskatzen dugu»

**Ados zaude eutanasiari buruz indarrean dagoen legediarekin?**

Ez, ezta inola ere. Kode Penaleko 143. artikulua suizidio lagunduari buruz hitz egiten du, eta baita eutanasiari buruz ere, nahiz eta ez duen hitza bera aipatzen. Homizidioaz hitz egiten duen atalaren barruan sartuta dago. Nire ustez, perbertsio juridikoa da homizidioaz hitz egitea, gaixoa berak eskatzen duenean kontzientzia eta askatasun osoarekin hiltzeko laguntza eskatzen duena. Artikulu horrek begi bistakoak diren hiru puntu ditu gai



horiei lotuak: pertsonaren autonomia, Espainiako Konstituzioko 10. artikuluan jasotzen den pertsonalitatea askatasunez garatzeko eskubidea, eta herritarrek inkestetan emandako iritzia. 2009an, eutanasia jokabideari buruzko azterketa bat eskatu zion CISi Bernat Soria ministroak. Horren arabera, % 80,5ek uste du legeak medikuei baimena eman beharko liekeela bizitzari amaiera eman eta gaixoen sufrimendurekin amaitu ahal izateko, askatasunez hala eskatzen duten pertsonen kasuan. Herritarren % 73,6k, berriz, uste du legez arautu beharko litzatekeela eutanasia. Honi gehitu behar zaizkio ere jurista eta aditu batzuk, 143. artikuluan esaten denaren aurrean, pertsona baten autonomia ezin dela mugatu uste dutenak, alegia. Beraz, eutanasia gaitzesten eta zigortzen duen gaur egungo araua zalantzan geratzen da.

**Zer proposatzen duzue legedia aldatzeko?**

Politikariei eskatu nahi diegu entzun eta kontuan har dezatela herriaren borondatea, eta baita argi mintzatu daitezela eutanasiaren alde. Honako eskakizun hauek ere egiten dizkiegu: adituen batzorde bat eratu dezatela, hausnarketarako guneak eta eztabaida publikoa sustatu ditzatela, eta hausnarketa horiek Parlamentura hel daitezela. Legeak herriatik sortu behar dira, elkarbizitza erraztea baita euren helburua.

Suizidio lagunduaren eta eutanasiaren ikuspuntu berri bat eskatzen dugu. Eutanasia jardueri buruzko beste ikuspegi bat. Medikuek ez du inor hiltzen; gaixoak eskatzen du hiltzeko laguntza, argitasun eta askatasun osoz.

**Gizartean heriotzari buruz hausnartze-ko beharra dagoela uste duzu?**

Aipatutako inkesta horretan ikusten da gizartearen heldutasun moral eta politikoa handiagoa dela politikariena baino. Bakean hil nahi dugu denok, sufrimendurik gabe, ahal bada lo gaudelarik, eta edonork uler dezake –oso itxia ez bada behintzat– sufrimendu handia duen pertsona batek heriotza nahi izatea liberazio moduan. Kontrakoa uste duena ari da bere borondatea eta bere irizpideak askea den norbanako bati inposatu nahian, eta bere baloreen kontrakoa den portaera batera behartzen, inongo eskubiderik gabe.

**Pertsona batek noiz izan beharko luke hiltzeko eskubidea? Mugarik ba al dago bizitzaren amaierari buruz?**

Pertsona hori burujabea bada, hau da, bere kabuz erabakitze moduan bada, berak erabaki behar du noiz eta nola hil nahi duen. Gure elkarteak nahiko luke legeek salbuespen bat egitea beren egoera larriagatik heriotza eskatzen duten pertsonekin.

**Zein da epe motzera zuen elkarteak duen helburua?**


Gizartearen heldutasuna zabaltzeko eta hedatzeko mugimendu bat sorrarazi nahi dugu: ezin dugu «aita» Estatuak zaindutatako haurrak izan, gure bizitzari buruz askatasunez erabakitzen uzten ez badigu.

Baina, gaur egungo araudia indarrean dagoen bitartean, herritarrek hiltzeko prozesua ahalik eta duinena izatea nahiko genuke. Neurri batean, gure ahaleginari esker lortu dira hiru erkidegotan –Andaluzia, Aragoi eta Nafarroa– hiltzeko prozesuan gaixoek dituzten eskubide eta bermeei buruzko legeak. Euskadin ere prestatu zen aurrekoen antzeko lege-proiektu bat, baina hauteskunde deialdiaren ondorioz, amaitu gabe geratu zen. ■

Hitz gezidunak

	Zaintsua	Arraunean egiteko	Katuaren umeak	Udako bisitari	Irudi ortodoxoak
	Estualdi	Kontso. bikoitza	Joan den urtean	51	
	Pl. hedabide mota				
	Su eman, piztu				
IRUDIAN	India	Barazki mota		Har ezak!	
Jasan	Diruzko zigorrak	Kontsonantea		Bokala	
			Bibliako personaia		
			Bokala		
Uso ar		Nauka		1. eta 4. bokalak	
VIII. hilabetea		Nafarroako herria		Ipar., izua	
			Miresmena		
			Bromoa		
Momentuak		Zerga ezaguna			Potasioa
Asiako estatua		Jainko egiptoarra			Naizen hau
		Uretako bizidun			
		Bokala			Oxigenoa
Ukitzea			Itsas hegazti		

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Animalia adardunak.
2. Hegazkin.
3. Estatu bitan banatzen den lurralde asiarra.
4. Nahastura trinkoa.
5. Garai, aldi.
6. Ugari, jori.
7. Nafarroako udalerrria, Urumealdean.
8. Orainaldia.
9. Haize instrumentua.

SOLUZIOAK

	U	D	I	K	O	N	O	A	K	O
	K	A	L	I	A	I	A	K	I	O
	A	R	R	A	Z	A	M	E	Z	A
	A	R	R	A	T	U	A	K	A	R
	Z	A	I	N	A	R	T	A	K	E
	L		I	R	A	Z	E	K	I	
			L	A	U	B	U	R	A	K
			P	A	A	I	R	A	U	

1. Oreinak
2. Aireko
3. Korea
4. Orea
5. Aro
6. Naro
7. Arano
8. Oraina
9. Okarina

Hitz gezidunak

Goitik behera

# Jardunaldia 4/2013 Legea, etxebizitzak alokatzeko merkatua malgutzeko eta sustatzeko neurriei buruzkoa

**2014ko otsailaren 12an**

EUROPA JAUREGIA (Gasteiz etorbidea, 85)

**Vitoria-Gasteiz**

**LHIEE-EVETU**

LURRALDE ETA HIRI  
IKASKETETARAKO  
EUSKAL ESKOLA

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



<https://www6.euskadi.net/t59aWar/encuestasJSP/t59aLimpiar.do>

IVAP Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Kontaktua Laguntza Gunearen mapa Erabilerraztasuna Egotza elektronikoa

Erakundea Zerbitzuak Arioak Loturak

Hemen zaude: Hasiera / Euskara / Administrazioa Euskaraz

» Harpidetzak  
» Nire harpidetza  
» Aldizkariaren kontsulta  
» Artikuluaren kontsulta  
» Iradokizunak  
» Inkestak

W3C WAI-A WCAG 1.0

73 ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

REVISTA VASCA

© 2009 - Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco

Legezo Oharra

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**Galderak erantzun**

Inkestak Laguntza

Inkestaren datuak

1. Erraz irakurtzen duzu aldizkaria?

ez daki/ez du erantzuten  nekez  zail samar  nahiko  erraz  oso erraz

2. Aldizkarian erabiltzen den euskara egokia iruditzen zaizu?

ez daki / ez du erantzuten  desegokia  nahiko egokia  egokia  oso egokia

**Bukatzean, bidali**

Bidali